

ARGIA



TSUNAMI DEMOCRATIC AUZIA

“Ehunka kasu ebatziko ditu Amnistia Legeak, baina gu kanpoan geratuko gara”

Suitzan erbesteratu dira Jesús Rodríguez eta Ruben Wagensberg kataluniarrak

30-37. orrialdeak

2.874 | 2024 / 06 / 09 | 4,00 €



“Mugalariak gizonak izan ziren, baina EHko emakumeak oso garrantzitsuak izan ziren”

14 | MEG OSTRUM



Arrakastatsua izan da bosgarren edizioa

24 | ZIBURUKO AZOKA



“Tarteka oholtzatik jaitsi beharra dago”

46 | FRANCIS DÍEZ



Prezioa **17 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA**

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | IÑIGO MARTINEZ
- 21 | CASTILLO SUAREZ
- 22 | LAURA PENAGOS

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | DENBORAREN MAKINA
- 45 | ARGIA KOMUNITATEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

24 | ZIBURUKO AZOKA

Ekainaren 1ean bikain joan berri da Ziburuko Euskarazko Liburu eta Disko Azokaren 5. edizioa. Daniel Landart izan da omendua eta Arantxa Hirigoienekin batera antzerkigintza egin zuen mahai-inguruaren laburpena ekarri du Gorka Peñagarikanok, mahai-inguru horretako gidariak. Jenofa Berhokoirgoinek osatu du egunaren kronika, antolatzaileekin eta argitaletxeekin mintzatu ostean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Israelen espioitzak eta mehatxuak, Nazioarteko Zigor Auzitegia kikiltzeko

Jenofa Berhokoirgoi

14 | PERTSONAIA | MEG OSTRUM

“Pertsona baten ekintza heroikoen atzean babes-sare oso bat dago”

Danele Sarriugarte

30 | POLITIKA | TSUNAMI AUZIAGATIK ERBESTEAN

“Ez dugu auzi justurik edukiko; gidoi hau lehendik idatzita zegoen”

Gorka Peñagarikano

38 | GORPUTZ HOTSAK | EDURNE IRIBARREN

“Fibromialgiaren okerrena da ingurukoek ez sinistea”

Olaia L. Garaialde

46 | KULTURA | FRANCIS DÍEZ

“Oholtzatik jaitsi, bizitza normala egin eta gauzak gertatzen direla ikustekak beste ikuspegi bat eman digu”

Patxi Gaztelumendi


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoi, Jon Torner,
Julen Ugartemendia, Lander Arbelaitz,
Leire Artola, Manex Moreno, Manex
Usarralde, Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona,
Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria


Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



Gerra zabaldu

NATOk eskatu duena onartu berri du Europar Batasunak: Mendebaldeak ekoiztiko bonbak, tartean Euskal Herrian, Errusiako lurraldean bota ahal izatea Ukrainak. Alegia, zibilak nagusiki jo-puntu dituen gerra are gehiago zabaltzea. Horixe izan da bakeaz eta demokraziaz mintzo diren europar buruzagien azken ekarpena, hauteskundeak eta eskuin muturra ate joka daudela. Ondo dakite AEBek eta EBk Ukrainako erregimen ustelari emandako milaka milioi euro eta dolarrek ez dutela gerraren amaiera ekarriko, sufrimendua luzatuko baizik. Negoziatzea, hitz egitea, adostea... men egitearen sinonimotzat aurkeztu nahi dizkigute, industria militarren eta balore atzerakoien arrabola geldo ez dadin. Palestinan ez ezik, Europan ere gerra berretsi du kapitalismoak.



Amnistia Legea aurrera atera da Espainiako Kongresuan

ERREDAKZIOA

Ezusterik gabe eta gehiengo osoz onartu dute Espainiako Kongresuan Amnistiaren Legea, txalo artean. Eztabaida laburra izan da, baina tirabiratsua, eta irainak ere entzun dira. 177 aldeko boto jaso ditu legeak eta 172 kontra.

Erregistratu eta sei hilabeteko tramiteen ondoren, Senatuan atzera boto zelako, azkenean onartu dute gehiengo osoz Amnistia Legea Espainiako Kongresuan. PSOE, Sumar, Junts, ERC, EH Bildu, EAJ eta BNGren aldeko botoak jaso ditu legeak, denera 177, eta hortaz, beharrezkoak zituen 176 botoen langa gainditu du.

Eztabaida laburra izan da Madrilen, baina gogorra, eta zenbait momentutan ika-mika handia egon da eta irainak ere jaurti dituzte ultrasuineko kideek. Baina azkenik, onartu ondoren txalo zaparrada batez hartu dute haren aldekoek; bereziki indar katalanen ordezkariak ospatu dute onarpena eta "egun historikoa" dela adierazi dute: legea "78ko erregimenaren porrot" gisa aurkeztu du ERCko Gabriel Rufiánek.

PP, Vox, UPN eta Coalición Canariak legearen kontra bozkatu dute eta Pedro

Legea "78ko erregimenaren porrot" gisa aurkeztu du ERCko Gabriel Rufiánek

Sáchez-en dimisio eskaerak etengabeak izan dira haietako batzuen hitzartzeetan. Alberto Núñez Feijóok Sánchezen gobernuari egotzi dio "pribilegioak" eta "inpunitatea" eskaintzea herritar batzuei besteen gainetik.

EH Bilduko Jon Iñarriguren esanetan, aldiz, legearen onarpenak agerian uzten du "gatazka politikoak elkarrizketarekin konpontzen direla, ez auzitegietan". Mikel Legarda jeltzaleak ere "bizikidetzatza hobetzeko" elementu garrantzitsutzat jo du legea.

Nolanahi ere, legea ez da berehala koan indarrean jarriko, estatuko BOE aldizkari ofizialean argitaratzen denean baizik, eta horretarako lehenik Felipe Borbónen berrespena behar du. Bozketaren egunean kanpoan zen Espainiako erregea, zehazki, El Salvadorren. ●

Ia 300.000 euro eskatu dizkio Ernairi isunetan Jaurlaritzak

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

WErnai ekonomikoki itotzen eta politikoki deuseztatzen" saiatzeari leporatu dio gazte antolakundeak Eusko Jaurlaritzari. Jakinarazi dutenez, Aitor Zelaia eta Galder Barbadoren espetxeratze agindua salatzeke Bilbon eta Gasteizen egin zituzten bi ekimenetan identifikatutako 133 kideetako bakoitzari 1.500 eta 2.500 euro arteko isunak bidali dizkie Jaurlaritzak, Mozal Legea baliatuta. Guztiak batuta, orotara 290.500 euro dira. Isunei helegiteak jartzeaz gain, diru-bilketa kanpaina abiatuko dutela adierazi dute.

"Ernairen aurkako eraso argia da", adierazi dute Bilbon egindako agerraldian, eta Jaurlaritzaren erantzuna desproporzionatua dela salatu dute. "Hau ez da ausaz gertatu, urteetan Ernairen aurka izan duten obsesio etengabearen beste urrats bat da". Isunen aurkako helegiteak jarriko dituztela jakinarazi dute eta beraz, prozesu judiziala abiaraziko dutela. "Ez da erabaki erraza izan, prozesu judizial batek antolakundearen egunerokoan zama handia eragiten duelako, baina sinetsita gaude hori dela egoera bidegabe honen aurrean har dezakegun erabakirik egokiena". Erabakia kolektiboa izan dela nabarmendu dute eta zigortutako 133 pertsonen prestutasuna eskertu dute.

"Mozal legea baliatu dute gure aurka, hori baita 2015etik hona mugimendu sozialak itotzeko darabilten mekanismo errepresibo nagusia", kritikatu dute. "Gure proiektua deserrosoa zaie. Hori guztia ezkerreko independentismoa hezemonia politiko eta ideologikoa irabazten ari den unean dator, instituzioetan, masa mobilizazioan zein mugimendu sozialean. Aldaketak eragiteko gaitasuna dugu, gazteon bizitzak hobetzeko eta herri honen etorkizuna marrazteko. Aurrera goaz, gehiago gara eta haiek beldur dira".

Diru bilketarako kontu korrante baten berri eman dute: ES14 3035 0108 01 1080050918. Elkartasun zozketa eta crowdfunding bat abiaraziko dutela ere jakinarazi dute. ●



ESPAINIAKO KONGRESUA

MATERIALISMO HISTERIKOA

Palestina



UXUE APAOLAZA LARREA

Zutabe bat gehiago idaztera eseri, eta Palestina deika sumatzen duzu, baina ezin jakin ondo zer egin. Zerbait esan behar da, nork nahi du isildu. Nori baina. Argiako zer irakurlek ez daki han gertatzen ari dena? Argiako irakurleak badaki gertatzen ari dena, gertatzen ari zena, amorratu da, badaki orain Palestinari estatu bat edukitzeko eskubidea onartzea ez dela nahikoa, ia txantxa bat dela: zeren estatu, egongo da berreraikitzeke zerbait (kontraturen bat) han? Zer orduan dena baldin badakigu? Berriro zutabe zigortzailerren bat ezer egiten ez dugula salatzeke, egin ahal bagenu bezala. Edo horixe bestela, zutabe fatalista bat ezin dugula ezer egin esateko. Esateko, gainera, kapitalismoa estrabagante dabilela mundu osoan, nahi duena eginez, eskuin muturrez mozorrotuta, Mileiz mozorrotuta atzean Macri egon arren, Meloniz, Trumpez (eta horrela Bidenek ez dirudi ultrakapitalista gerrazale bat). Abascalez, eta horrela Pedro Sánchezek ezkertiarra dirudi.

Baina gogoeta horiek guztiak berrogeita piku urteekin egiten ari naiz. Esaldiak “gaur egungo gazteak” esanez hasten dituzten belaunaldikoa naiz. Fatalismora apuntatu, eta txakrak irekitzen ari diren belaunaldikoa. Ez naiz aditua soziologian, eta ez naiz gaztea. Baina beharbada kapitalismoa pasatzen ari da, geure burua ezin jasateraino. Eta gazteek uste dute zerbait alda dezaketela, eta frogatzea erabaki dutela dirudi, eta, agian, orain ez dago indarririk Palestinaren alde asko egiteko. Baina elkartzearen elkartzeaz, aurre egitearen aurre egiteaz, agian, “gaur egungo gazteak”, eguna mugikorrari begira pasatzen omen duten milenial horiek, gorputza jartzen ari direnek sorpresaren bat emango digute. Palestinako sarraskiak balio dezala, gutxienez, horretarako. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Sexu erasoak

Irakasle baten sexu abusuak salatu dituzte Getxoko Europa ikastetxeke lau familiak. Segurtasun Sailak ikerketa abiatu du. Eskolatik adierazi dute irakaslea “zentrotik apartatu” dutela eta “erabateko arduraz” jokatu dutela, baina familiek gertatua “estali” nahi izana leporatu diote.

Ekonomia

Trantsizio ekologikoaren alde egiteko omen ziren Next Generation EU funtsak ez dute helburua betetzen eta Euskal Herriko enpresa transnazional boteretsuenak ari dira funtsak jasotzen, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak osaturiko txosten mamitsuaren arabera.

Zezenketak

“Zezenketarik gabeko sanferminetarako trantsizioa errazteko” eskatu die Iruñea Antitaurina kolektiboak Peñen Federazioari. “Festa giroan zezenen presentzia egon behar den ala ez aztertzeke” garaia iritsi dela uste du kolektiboak, eta bide horretan ezinbestekoa dela peñen inplikazioa.

Txosnetan Mugimendu Sozialistari parte hartzen uzteko eskaera

ERREDAKZIOA

Desadostasun ideologikoen gainerik, jai herrikoiek denon espazio izan behar dutela ulertuta, txosnetan GKSri eta Etxebizitza Sindikatuari Gasteizen eta Luberri Konpartsari Bilbon betoa jarri dietela salatu eta konponbidea eskatu dute 150 bat artistak. Tartean dira Itziar Ituño, Joseba Sarrionandia, Mireia Gabilondo, Amets Arzallus eta Fermin Muguruza.

Bilboko konpartsetan eta Gasteizko txosna-batzordean aipaturiko eragileei "ezarri zaien debekuak kezkatzen" dituela diote sinatzaileek, gutun irekian, eta gehitu dute "ulertezina" egiten zaiela: "Nork bere izaera eta aldarriekin, jaiak gozatzeko eta ospatzeko espazioa izan behar luke, elkarrenarekiko tolerantziaz".

Aurretik, pasa den martxoan, Gasteiz eta Bilboko festetan Mugimendu Sozialistari betoa jarri zietela salatuz Euskal Herriko 100 bat eragilek komunikatua argitaratu zuten.

Eragileek eurek ere salatu izan dute egoera aurretik. "Beto politiko honek Bilboko Konpartsen printzipioak urratzen ditu, konpartsen bereizgarri izan baita hasieratik aniztasun politikoa", zioen Luberri Konpartsak, duela hainbat hilabete.

KONPONBIDERAKO ZUBI

Bilbo eta Gasteizko jai herrikoietan Luberri konpartsak, GKSk eta Etxebizitza Sindikatuak "berdintasunean eta diskriminaziorik gabeko jai giroan eta kultur ekitaldietan parte har dezaten", sinatzaileek preste daude "esku dagoena" egiteko. Egoerari konponbidea emateko "bideak ireki daitezela" eskatzen dute, "zentzurik gabeko gatazka bakarrik ekar dezakeen betoa gainditzeko".

Sinatzaileen artean daude, besteak beste, Fermin Muguruza, Itziar Ituño, Natxo de Felipe, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga, Leire Bilbao, Amets Arzallus, Mireia Gabilondo, Jone Laspiur, Karra Elejalde, Ainhoa Larrañaga, Merina Gris, Hofe, Olaia Inziarte eta Antton Telleria. ●

ANALISIA

Nork ebaluatzen du azterketa orria?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Azterketak dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxillergoan ebaluazioaren oinarria. Gaur ez nator mundua aldatzearekin amestera, ez nator "azterketak ez du ikasleak dakiena islatzen" predikatzaera.

Hel diezaiozun zezenari adarretik, edo azterketari boligrafo gorritik. Gurasoaren lekutik idazten dut: ziento bat azterketa egin izango genituen gure ikasle garaian eta orain etxean ikusten dugu ikaslea ekinen. Helduen begirada dugu eta eskolako bileretan irakasleekin enpatizatzen eta haien alde ulertzen saiatzen gara. Eta horrekin denarekin, ba porrusalda egiten dugu afal garaian mahaira ateratzen diren "ez dago eskubiderik" eta "nola liteke"ak liseritzen laguntzeko.

Irakasleei porrusalda hau irensgarri gerta dakien, adierazi nahi dut ikas-tetxera edozein galdera, kezka edo iradokizunekin jo dudanean erantzun oso ona jaso dudala: momentuan bertan eta prestutasun osoz eman dizkidate argibideak edo materialak. Alde biko enpatiatik joan gara elkartzen gaituen ikasleari laguntzen, bidean izan dituen oztopoetan. Esan gabe doa, etxean ikasleen "ufa" eta "aiene"ei leku egiteak ez duela esan nahi haien kexa denak konstituzioko artikuluko bihurtzen direnik. Baina bai, aizue, ikasleek haien adin labur edo gaztean, oso zentzuzko gauzak ere esaten dituzte, eta haiek parte diren ikaskuntza prozesua interpretatzeko eta korapiloak non diren adierazteko gaitasun zorrotza dute, baita ekarpenak egitekoa ere. Haiei entzunda, hauxe nire ondorioa, beti ez direla azterketa bat gainditzeko bermatu behar diren gutxieneko baldintza hauek betetzen:

Azterketan zehazki zer sartzen den eta zer ez jakitea. Azterketan galdetzen den edukia ikasle denen etxeetara iritsi izana. Azterketan galdetzen dena klasean ulertzeko moduan eta behar den denbora eskainita azaldu izana (positiboan jarrira ez ulertzeko tarte zabalegia utzi dut, ezta? Negatiboan: "Klaseko azken hamar minututan azkar azaldu eta galderei ez erantzutea"). Azterketan jartzen diren ariketak edo egin beharreko lanak (testu iruzkinak, x mailako ariketa matematikoak...) aurrez klasean egin eta zuzendu izana. Azterketa irakurtzean ikasleari sortzen zaizkion galderak argitzea (zergatik ez da bermatu behar ikasleak azterketan eskatzen dena zer den ulertzen duela? Zergatik eman behar da egintzat azterketa idatzita dagoen moduak ez duela dudarik sortuko?). Azterketa esleitu zaion denbora horretan egingarria izatea (kaixo filosofiako irakasleak). Azterketan galdetzen dena gai horretan esanguratsua izatea (kaixo urte asko gauza bera ematen eta beti garrantzitsuena galdetzeaz nekatu zareten irakasleak).

Hainbeste urte daramatza hezkuntzak ikasleak etengabe ebaluatzen, eta oraindik ez du ikaskuntza prozesuaren parte diren kide guztien ikuspegia integratu ebaluazio bakoitzean. Eta hori ezinbesteko baldintza da azterketaren beraren emaitzak ulertu ahal izateko: zer gertatu da azterketa horretan, eta zer gertatu da azterketa horretara iritsi bitarteko ikaskuntza prozesuan, ikasgai horretan eta talde horretan? Prozesu baten parte diren kide guztien ikuspegia jaso behar du ebaluazioak; ongi ebaluatzeko eta hobetzeko modu bakarra da. Hor aurkituko ditugu ikasgai batean pilatu diren "nota txarren" erantzunak, eta ikasle zein gurasoei hitza emanda aurkituko ditugu, horiek esango dute zer falta izan zaien, zer zailtasun topatu dituzten bidean. Baina nola egiten da hori? Nola egiten da prozesua bera eraikitzailea izan dadin? Nola egiten da ikasle eta gurasoen ikuspegia ez dadin "kritika erasokor", "kexa", "irakaslearen aurkako epai" bihurtu? Prozesuan zehar izan behar dute parte-hartze antolatua partaide guztiek, prozesuari berari buruzko gogoetak eta ekarpenak egiteko, prozesua garaiz aldatzen joateko. Azterketa egin ostean hitz egiten hastea, alferrik eta mingarri da, denentzat. Baita ikaskuntza prozesuari buruzko bere ikuspegia eta bizipenak ixildu eta aldi berean "gehiago saiatu behar du", "gabeziak ditu", entzun behar duten ikasleentzat ere. ●

25-34

urte bitarteko gazteen artean, gurasoen etxean bizi diren gazteen portzentajea %24tik %27ra igo da bost urtetan, 2017tik 2022ra. Emantzipatu nahi baina ezin duten gazteen kopurua gero eta handiagoa da Europar Batasunean.

3.000

familiaren babesa du dagoeneko Nafarroan sortu duten elkarteak: Mugikorrik Gabeko Nerabezaroa. Telefono mugikorra edukitzeko adina atzeratze aldera, indarrak batzea dute xede.

6

ikasle ditu Zigako (Nafarroa) eskolak, eta hurrengo ikasturtean 4 baino ez ditu izango. Ondoren, ume gehiago eta segidarik ezean, eskolak itxi egin beharko ditu atek.

“Homosexualei ez zaie seminarioetan parte hartzen utzi behar, nahikoa marikoikeria dago jada barruan”

FRANTZISKO AITA SANTUA

Italiako Apezpikuen Konferentzia itxian esan zituenak filtratu eta hautsak harrotu dituzte hitzok.

2024-05-20



“BERTAKO PRODUKTUAK LEHENETSIKO DITUEN EUROPAKO LEGEA EZARTZEA NAHI DUGU”

Hainbat eragilek deituta, traktoreek egun bateko protesta egin dute Biriaturuko mugan.

2024-06-03

“Zauri horiek ixtea zaila bada ere, ekitaldi honek luze itxarondako errekonozimendu eta konponketan lagunduko duela espero dut”

ANA OLLO

Nafarroako Gobernuako Memoria eta Bizikidetzako kontseilaria. Nafarroako Gobernuak lehen aldiz Poliziaren eta eskuin muturraren biktima politikoak aitortu ditu.

2024-05-31



TEKNOLOGIA

Publikoa ai do!



DIANA FRANCO

Euskal eskola publikoetan irakasleek sekulako lana egiten dute aniztasuna kudeatzen. Euren lana egiteko modua berrasmatu behar izan dute azken urteetan. Konplexuagoa bilakatu den mundu honetan pertsona izatea zer den esploratzeko labo-rategiak iruditzen zaizkit eskola publikoak. Irakasleei irudimena ez zaie falta: ikasleak mugituz, nahastuz, harremanak sustatuz... ikasleek mundu ikuskera berriak sortzeko giroak bilakatzen dituzte ikasgelak. Jakin badakigu, ordea, oinarritzako zerbitzu publi-koetara sarrera izatea ez dela nahikoa eta garrantzi handia duela harreman esanguruatsua sortzea gizartean modu aktiboagoan parte hartzeko, bizitza hobea izateko. Beharbada ideia horrek gidatuta, ostira-lean (maiatzaren 31n) gure eskolan zenbait gurasok inklusioaren eguna ospatu zuten. Guraso magrebtarrek euren sukaldaritzako gozokiak partekatu zituzten, euskaldunek herri kirolak dinamizatu, Sahara azpiko herrietakoek ilea apaindu zieten haurrei, gurpil aukietan sakibalo partidu bat jokatu zen... Gelan ematen den nahasketa gelatik atera eta harremanetan ohikoa ez zaizun "bestearekin" hitz egiten hasteko aitzakiak sortu ziren, batez ere gurasoon artean.

Zorionez, aniztasuna hezkuntza publikoa-ren beste eremu batzuetan bultzatzen ari da, hala nola teknologietan. Azken Moodle Moot Euskadi Topaketan Berritzegune Nagusiak tekno-aniztasunari loturiko berri on bat partekatu zuen: IRADI proiektua, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoei eskainiko dien software librean oinarrituriko online ikasketa plataforma. Oraindik garapen fasean dago, eta tresna guztiak bezala, etengabeko berrikuntza eta lana beharko du ikastetxeen egunerokora behar den bezala egokitzeko. Baina oso berri garrantzitsua da, ikasleen datuak Jaurlaritzaren zerbitzarietan gordeko direlako, eta interes ekonomikoak asetzeko bazterkeria algoritmikoa sustatu dezaketen enpresa pribatuetatik babestuko dituzte haur eta familiak. Era berean, hezkuntza sistema osoa teknologikoki ahaldun-duko du. Ekainaren 2an Euskal Eskola publi-koaren jaia ospatu zen, publikoa ai do! eta horrela jarrai dezala! ●

NAZIOARTEA



Milaka ume Gazan, gurasorik gabe


AXIER LOPEZ

Gazako haur palestinar bakoitzak Israelgo indarkeria mitarrarekin lotutako historia lazgarria du: hilketak, lesio traumati-koak, desplazamendu masiboak, gosea, auzo osoen suntsiketa eta senideen banaketa barne, orbainak eta trauma iraunkorrak uzten dituenak. Haurrek ez lukete zama hori jasan

beharko.

Nazio Batuen Haurren Larrialdie-tarako Nazioarteko Funtsaren (UNICEF) arabera, Gazako haur guztiak –milioi bat inguru– laguntza psikoso-ziala beharko dute. Palestinako hau-rrak eritmo beldurgarrian hiltzeaz gain, bizirik irauten dutenen haurtza-ria hiltzen ari da erakunde sionista. ●

Amillubi proiektuak diru bilketako lehen helburua gainditu du



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

- Internet bidezko kanpaina
- Biolurrera zuzenean
- Zozketa eta bonologuntzak
- Kooperatiben irabaziak IPDK
- Falta dena

Zestoako Amilibia baserria (500 metro koadrokoa) eta bere lurak (4 hektarea laborantza lur eta 5 hektarea baso) eskuratzea eta bertan elikadura burujabetzari loturiko laborantza proiektu agroekologikoak martxan jarzea; horixe du helburu Biolur elkarteak. Baserria eta lurak erosteko eta baserria konpontzeko guztira 390.000 euro behar dituzte, eta 2025 bukaerarako batu behar dute dirua. Hori lortzeko, dirua batzeko hainbat bide jarri dituzte martxan eta horietako bat da Internet bidezko kanpaina: abenduan ekin zioten interneteko diru bilketa kanpainari eta maiatza bukaera arteko epea finkatu zuten. Helburuari zenbaki bat jartzerakoan, erronka handia planteatu zuten: 150.000 euro lortzea internet bidezko kanpainan; eta lortutakoa ez da makala: 132.604 euro Interneteko plataforman (maiatzaren 31n, albiste hau idazteko momentuan). Epe horretan, gainera, beste hainbat herritar eta eragilek zuzenean Biolurrera jo du ekarpena egitera eta guztien artean (interneteko plataforma bidez zein zuzenean Biolurren ekarpena eginda), guztira 180.000 euro batu dituzte. Helburua oso goitik gainditu dute, beraz.

INTERNETEKO DIRU BILKETAREN DATUAK

Guztira 795 diru ekarpen jaso dituzte internetez sei hilabete hauetan eta guztien artean 132.604 euro batu dituzte (albiste hau idazteko momentuan zeu-

den datuak dira). Ekarpena egin duten horien artean 36 eragile sozial eta ekonomikoak dira eta 759 norbanakoak. Lurraldetasunari begira, %74 Gipuzkoatik egin dira, eta gainontzekoa Euskal Herriko beste 171 herritatik; eta beste 32 ekarpen Espainiako estatuko hainbat lurraldetatik jaso dituzte. Epea gainditu den arren, hurrengo bi asteetan internet bidez ekarpenak egiteko aukera egongo da (www.amillubi.eus webgunean), plataforma ixten den bitartean.

BESTE DIRU ITURRIAK

Eragile eta norbanako batzuek beraien ekarpena ez dute internet bidez egin, Biolurrera jo dute zuzenean. Modu honetara 41.073 euro osatu dituzte. Ekarpene hori egin dutenen artean, 43 norbanakoak dira eta 13 arlo desberdi-

Albiste hau idazteko momentuan, diru iturri guztiak kontuan hartuta 271.549 euro ziren batutakoak eta 118.451 ziren lortzeko falta zirenak

netako eragileak dira (sozialak, kulturalak, ekonomikoak, sindikalak...).

Horrez gain, Kooperatibek urteko irabazien zati bat gizarteko proiektuetan inbertitzen dute (IPDK gisa ezagutzen dena). Euskal Herriko 6 kooperatibek bideratu dute haien irabaziaren zati bat Amillubi proiektura (interneteko diru biltze kanpainatik kanpo) eta hauen bitartez 74.000 euroko ekarpena jaso dute.

Zozketa bat ere egin dute Amillubiren alde, eta txarteletan 17.592 euro eskuratu dituzte. Gainera, hainbat azoketan bono laguntzak jarri dituzte herritarren eskura, Amillubiri ekarpena egiteko modu gisa: bide horretatik oraingoz 6.280 euro bildu dituzte.

Maiatzean egin berri duten I. Uda-berriko Festako diru kontuen itxiera oraindik zehaztu gabe dago baina horrek ere egingo dio ekarpena diru bilketari.

Bada beste diru iturri funtsezko bat: udalekin zein bestelako erakunde publikoekin hitzarmenak lotzea. Orain arte Zestoa, Aizarnazabal, Zumaia eta Azpeitiako udalekin hitzarmena lotu dute eta aurrera begira beste udal batzuk ere batzea espero dute.

Oraingoz guztira 271.549 euro dira aipatutako diru iturrietatik batutakoak. Beraz, gaur gaurkoz 118.451 euro dira lortu beharko direnak hurrengo hila-beteetan, beharrezkoak diren 390.000 euro tara iristeko. ●

ISRAELEN ESPIOITZAK ETA MEHATXUAK, NAZIOARTEKO ZIGOR AUZITEGIA KIKILTZEKO XEDEZ

The Guardian, +972 eta *Local Call* komunikabideek plazaratu ikerketa berriak xeheki azaleratzen digu Israelgo Gobernuak 2015az geroztik bideraturiko Nazioarteko Zigor Auzitegiko (NZA) kargudunen aurkako espioitza, pirateatze informatiko eta mehatxuak. Urte horretan bihurtu zen Palestina NZAko kide eta horrek ikaratu zuen Israel, hain zuzen, kide diren estatuen barneko krimenak ikertu ditzakeelako epaitegi horrek – Israel ez da kide–. Israelgo Benjamin Netanyahu Lehen ministroaren eta Yoav Gallant Defentsa ministroaren kontrako atxilotze aginduak galdetu izana da NZAren ikerketa juridikoaren emaitza.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Maiatzaren 20an jakiten genuen Israelgo Benjamin Netanyahu Lehen ministroaren eta Yoav Gallant Defentsa ministroaren kontrako atxilotze aginduak galdatzen zituela Nazioarteko Zigor Auzitegiko prokuradore Karim Khanek. Gazako Zerrenda eremu hetsian bideratu genozidiodia ikusirik, beharrezkoa eta halabeharrezkoa. *The Guardian*, +972 eta *Local Call* komunikabideek hortik zortzi egunetara plazaratu ikerketa esku artean hobeki ulertzen da prokuradoreak momentuan luzatu abisua: "Berriz diot, bertan behera utzi behar dira auzitegi honetako arduradunak oztopatze, beldurtzeko edo bidegabeko influentzia bideratzeko ahalegin guztiak".

Kazetaritza lan horren ondorioa irakurri dezakegu ikerketaren berri dakarren *Spying, hacking and intimidation: Israel's nine-year 'war' on the ICC exposed* [Espioitza, pirateria informatikoa eta larderia: bederatzi urteko Israelen 'gerra' NZAren aurka] erreportajea: "Israeliek bere informazio agenteak bideratu ditu NZAko goi kargudunen zaintzara, pirateatzera, presionatzera, difamatzera eta omen mehatxatzera, eta hori auzitegi horren inkestak desbideratzeko".

Palestinaren eta Israelen arteko gatazka politikoko eta horri buruzko ikerketako eragile esanguratsuen adierazpenetan oinarrituriko ikerketa fidagarria atera

dute hiru komunikabideek elkarlanean: 25 bat jenderekin hitz egin dute eta horien artean dira Israelgo informazio zerbitzuetako langile batzuk, gobernuko arduradun izandako ala diren batzuk, baita NZAko goi-arduradun batzuk eta ikerketari hurbil diren abokatu eta diplomazialari zenbait. Ikerketan agertzen denez, Israelgo Gobernuko segurtasun nazionalerako aholkulariek marrazturiko estrategia horretan dabilta Shin Bet Israelgo espioitza agentzia, Aman informazio militararako zuzendaritza eta ziber-informazioan dabilen 8.200 izeneko unitatea. Maltzurki lapurturiko informazioa bideratzen diete Justizia, Kanpo Harremanen eta Afera Estrategikoen ministerioei.

KONDENAK SAIHESTEKO ABIATURIKO JOKO ZIKINA

2015eko urtarrilean abiatu zuen estrategia hori Israeliek, hain zuzen, Palestina NZAko kide onartu zutenean. Israelgo ordezkariak "terrorismo diplomatikotzat" jo zuten erabakia eta egitura honen aurkako "gerra" abiatu zuten, Hagatik Israelen aurka bideratzen ahalko zituzten ikerketak zapuzteko xedez. Hain zuzen, gerra krimenen edota gizateriaren kontrako krimenen harira epaitzeko aukera bideragarri bihurtzen zuen Palestinaren integratzeak, bakarrik estatu kideetan bideraturikoak dituelako ikertzen eta zigortzen ahal auzitegi horrek.

Israel ez da kide, AEBak ere ez, funtsean. Iturri baten adierazpenak frogatzen du Israelen Gobernuan dagoen kezka hori: "Goi-kargudun batzuk beldurrez ziren Zisjordaniarako postu batzuk hartzerakoan, Hagan epaituak izateko beldurrez ziren".

Emailak pirateatzea eta telefono deiak entzutea izan da Israelen zelatatze-bideetarikoa. Jakinik, Gazara, Zisjordaniara eta Jerusalem ekialdera sartzea debekatuta diela NZAko ordezkariak Israeliek, bai ala bai emailaz eta telefono deiez komunikatu behar izaten dute inkestaren bideratzailerek. Ikerketako iturrietariko batek kontatzen die nola arbel zuri batean markaturik zituzten jarraitu beharreko 60 bat izen, erdiak palestinarrak eta beste erdiak Nazio Batuen Erakundeko zein NZAko ordezkariak. Testigu batek argiki aitortzen die: "Fatou Bensouda [2012tik 2021era NZAko prokuradore izandakoa] segitzeko bideak baliatu ditugu, informazio militararako agente gisa ez da, alta, legitimoa". Palestinako Gobernuak Kanpoko Erakundeetakoak ere jarraitzen zituzten, krimenen frogak bideratzen zizkielako auzitegiari. GKE horien artean da, besteak beste, giza eskubideen alde lanean dabilen Al-Haq elkarte, 2021ean Israeliek "talde terrorista" gisa sailkatutakoa.

Bildutako informazioak baliagarri zitzazkien, besteak beste, auzitegiko ordezkariekin 2017tik 2019ra ukandako bile-



KARIM KHAN

NZAko prokuradoreak eskaturiko atxilotze aginduek Israelen eta AEBen kritika gogorak eragin ditu.

NZA

ra sekretuetarako. Hain zuzen, hitz egin beharrekoaren eta leporaturikoaren berri ukanik, bideratu zezaketen barne mailako ikerketa bat aitzinetik –NZAren osagarritasun printzipioari esker, Hagako auzitegiak ezin dezake pertsona bat ikerketu eta zigortu, estatu mailan jadanik abiatu baldin bada ikerketa haren kontra–.

2019an bukatu ziren bilera klandestino horiek, gerra krimenari buruzko ikerketa abiarazteko "bidezko oinarriak" zeudela adierazi zuenean Bensoudak. Orduan, intentsifikatu zituen Israelek espioitza eta presioa, prokuradorearen aurkako mehatxu argiak eta pertsonalak ere bideratuta. Mossad inteligentzia agenziako zuzendari Yossi Cohenek be-

rak presioa egiten zion, "modu zitalean", errepikaturiko telefono dei eta abisatu gabeko bisiten bidez. Ondoko abisua luzatu zion: "Hobe zenuke laguntzea eta guk zu zaintzen uztea. Zure eta zure familiaren segurtasuna konprometitu lezaketen ekimen horiei ez lotzea hobe zenuke".

AEB-AK BETI HOR, ONDOAN

Estrategia horretan AEBek duten rola ere argitara dakar ikerketak: diru eta bisa murrizketak, 2020an Trumpen administrazioak Bensoudaren eta auzitegiko beste goi-kargudun batzuen aurka harturiko zigor ekonomikoak, atxilotze aginduen eskaera ez luzatzeko "sekulako presioak" jaso izana, eta abar.

Bensoudaren kargualdia bukatu eta Khanek lekukoa hartu zion 2021ean. Israelek Palestinaren aurka bideraturiko gehiegikeriak ez zituen, iduriz, lehenetsu netan, baina gauzak aldatu zituen urriaren 7aren biharamunetan. Zazpi hilabete eta 35.000 hilen ondotik eskatuko zituen atxilotze aginduak –Israelgo baita Hamaseko arduradunen kontra ere–. Mota askotako presioei eta mehatxuei aurre egiteko erabakia esanguratsua da eta Gazan bizi duten larritasunaren heinaz ohar tzeko balio beharko liguke. Are gehiago, jakinda lehen aldia dela Mendebaldearen aliatu baten aurkako atxilotze agindua eskatzen duela Hagako auzitegiko prokuradore batek. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com








AHLEM
∞

Meg Ostrum

ARRASTOEI SEGIKA



PERTSONA BATEN EKINTZA HEROIKOEN ATZEAN BABES-SARE OSO BAT DAGO



Meg Ostrum estatubatuarraren liburu bati esker ezagutu dugu batzuok Charles Scheppens mediku belgiarraren eta Jean Sarochar artzain baxenabartarraren historia zirraragarria: Bigarren Mundu Gerraren garaian ihesbide bat garatu zuten Mendibe herrian eta Iratiko basoan barna, naziengandik eskapoan zihoazenak ezkutuan pasarazteko. Istorio horren atzeko istorioez mintzatu gara berarekin.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  ZOE MARTIKORENA / ARGIA CC BY-SA

Nolakoa izan da liburuaren idazketa-prozesua?

Historia hau ikertzen hasi nintzenean, buru-belarri aritu nintzen, miatu eta miatu. Baina gertatutakoa nola kontatu izan zen erronka nagusietako bat niretzat. Denbora asko eman nuen Schep-pens doktoreari elkarrizketak egiten, eta ondo ezagutzen nuen, baina Sarocharri zegokionez bigarren eskuko kontakizunak besterik ez nituen. Kontakizun bikainak izan arren, ez nuen nahi Sarochar pertsonaia lau gisa ager zedin. Hasieran pentsatu nuen Mendibe herriaren erretratu bat osa nezakeela, nola aldatu

den denboran eta abar. Baina ez nuen bertako historia aski ezagutzen horretarako. Eta gero pentsatu nuen *Rashomon* filmaren erara egin nezakeela, hainbat ikuspuntutatik istorioa kontatuta.

Baina ez zenuen hala egin.

Nire lehen liburua zen, gehitxo iruditu zitzaidan. Beraz, egiten nekiena egin nuen: mundu dokumentalean aritu izan naiz, elkarrizketa apartak neuzkan. Hala, ahozko historiaren metodologiatik aritu nintzen, eta bi pertsona horietan kontzentratu nintzen, haien arteko aliantza ezohikoan.

2004. urtean argitaratu zen liburu ingelesez. 20 urte geroago gaztelaniara itzuli da Katakarak argitaletxearen eskutik eta hainbat aurkezpen egingo dituzu Euskal Herrian datozen egunetan. Pozik zaude?

Amets bat da. Azken batean, bizi-proiektu bat bilakatu da hau. Liburu argitaratu nuenerako material mordoan neukan, baina banekien gehiago bil nezakeela. Beraz, liburu argitaratu ostean, eta bereziki frantsesezko itzulpena kaleratu ondoren [*Le chirurgien et le berger*; Auberger, 2011], pentsatu nuen itzul ninte-



Meg Ostrum

1950, CLEVELAND (AEB)



Kultur ondarearen kontserbazioan eta museologian aditua da. Esparru horri eskaini dio bere lan-ibilbide osoa: Vermonteko Arteen Kontseiluaren barruan Museoa eta Arte Bisualen koordinatzailea izan zen 1978tik 1986ra, eta hortik aurrera aholkulari gisa aritu da hainbat museo eta kultur erakundetan. 2000. urtean, dena den, liburu bat idatzi zuen gaitzat hartuta Euskal Herrian nazismoaren aurka izandako erresistentzia sare bat. Liburu hori Katakrakek kaleratu zuen iaz gaztelaniaz: *El cirujano y el pastor: Resistencia al nazismo en la selva de Irati* [Zirujaua eta artzaina: Nazismoaren aurkako erresistentzia Iratiko basoan].

keela eta falta zitzaidan informazioa bildu. Istorio oso samarra neukan, baina ez oso-oso.

Ipar Euskal Herrian ikertzen ibili zinen batez ere.

Ikertzen ari nintzenean ez nintzen asko etorri alde honetara: ez nekien gaztelaniaz eta bestela ere Frantziako aldean gauza mordo zegoen aztertzeko, eta horretan zentratu nintzen. Ondoren, Basque Pyrenees Freedom Trails Association-Euskal Pirinioak Askatasun Bideak Elkarteak oroimen-ibilaldi bat antolatu zuen, eta Iruñera etorri ginen. Hirugarren aldia dut hau Iruñean. Niretzat deskubrimendu bat da. Historia eta historiaren paisaia beste modu batean ikusteko eta pentsatzeko aukera bat da. Esan dudan moduan, ikerketa ez zegoenez guttiz amaituta, bizirik dirau nire barruan. Ez da nire arretagune nagusia izan, baina nire bizitzaren parte izan da dudarik gabe.

Eta kontua da kasualitatez izan zenuela Mendibeko erresistentzia-sarearen berri, 1983an, inguru horretan oporretan zenbiltzala. Berez, Bigarren Mundu Gerra ez da zure arloa, ez zenuen Euskal Herriarekin konexio berezirik... Kontatuko zenidake nola gertatu zen hori?

Istorioa ezagutu nuenean jakin-mina eragin zidan berehala. Ez da nire arloa, inolaz ere, eta alde aurretik ez nekien ezer gaiaz, baina izan ziren faktore batzuk istoriora bultzatu nindutenak. Batetik, hogeita hamagutxi urte nituen, eta uste dut adin horretan jendea prest egoten dela bera baino handiago den zerbaitetan murgiltzeko. Bestetik, euskaraz ez jakin arren, esan zidaten ingelesez eta frantsesez jakinda ondo konponduko nintzela. Eta azkenik Erdozainki jaunaren laguntza neukan. Ondotxo ezagutzen ditut komunitate txikietako dinamikak, eta banekien apaizak hor eragina izan zezakeela.

Komunitateak nola hartuko zintuen, kezka zenuen horrekin?

Horixe bera. Orduan pentsatu nuen: Erdozainki jauna daukat, eta asko

gustatzen zait ikertzea. Beraz, bere laguntzarekin abiatuko naiz, eta ikusiko dugu ea noraino iristen naizen. Hasieran ez neukan liburu bat idazteko asmorik ere.

Hain zuzen 1983ko bidaiaren hartan ezagutu zenuen Bernard Erdozainki apaiza, hark kontatu zizun Mendibeko erresistentzia-sarearena, eta misio bat eman zizun: Bostonen bizi zinez, Scheppensi gutun bat helarazteko eskatu zizun.

Mezulari bat nintzen. Scheppensi gutuna eman eta gero, pentsatu nuen: kito, amaitu ditut honekikoak. Baina istorioa iltzatuta geratu zitzaidan. Eta gainera nire lankide bat Scheppens doktorearen pazientea izan zela jakin nuen. Halako kasualtaterik! Hasieran, bidaiakronika bat idaztea pentsatu nuen: nola joan nintzen oporretan mendibilaldi bat egitera eta ordainetan istorio ahaztu bat deskubritu nuen. Eta asmo horrekin ekin nion.



Mugalariak gizonak izan ziren gehienbat, baina horren aurreko eta osteko errelebo-guneetan emakumeek garrantzia handia izan zuten. Euskal Herriko emakumeak oso garrantzitsuak izan ziren”

Baina...

Pentsatu nuen: hona hemen Scheppens doktorea, puntako oftalmologo bat mundu-mailan, zeinak istorio hau beretzat gorde baitu dakit zenbat urtean. *Schindler's List* [Schindlerren zerrenda] eta halako filmak apur bat geroago etorri ziren, eta halako kontuak ez ziren horrenbeste ezagutzen orduan. Iruditu zitzaidan hain istorio indartsua kontatu beharra zegoela.

Lehenago ere Mendiben gertatutakoaz idatzi zuen Willian Ugueux-ek, zeina erresistentzia belgikarreko kide garrantzitsua izan baitzen.

Bi liburu idatzi zituen gaiaren inguruan: lehena *Histoires de Résistants* [Erresistentziako kideen historiak] eta bigarrena *Passage d'Iraty* [Iratiko pasabidea]. Memoria-liburuak dira, eta esango nuke Ugueuxek egia luzatu zuela. Bere ikuspuntutik kontatu zuen istorioa, eta bere burua jarri zuen erdian. Istorio on bat sortu zuen. Nik hasieran ez nuen ondo ulertzen zergatik idatzi zuen modu horretara,

baina bi aldiz elkarrizketatu nuen, eta orduan ohartu nintzen. Memoria gauza inperfektua da oso, ez da zehatza, eta memoria-liburuak, zentzu horretan, erretratu inpresionistak dira.

Scheppens laguna zen. Ez zuen aintzat hartu haren ikuspuntua?

Ez zen erraza Scheppens doktorearengana iristea. Denbora asko pasa zen nitaz fidatzen hasi zen arte. Hasteko, bere izaeragatik, eta bestalde, agente bikoitza izana zen... Beraz, galdetzen zenizkion gauzei bakarrik erantzuten zien. Halako proiektuetan, bereziki pare bat pertsonatan zentratzen ari bazara, espero duzu uneren batean beren kabuz gogoeta egiten-edo hasiko direla, zuk galderarik egin gabe, oroitzapenen bat sortuko zaiela eta natural kontatuko dizutela. Scheppens doktorearekin ez zitzaidan halakorik gertatu inoiz. Inoiz ere ez. Beti galdetu behar nizkion gauza oso espezifikokoak, interrogatzaile baten moduan. Ugueuxek esan zionean liburu bat idatzi nahi zuela —nik hau gerora jakin nuen—, Scheppens doktoreak ordubeteko zinta bat grabatu zion, istorioaren bere alde azalduz, eta Ugueuxek horixe baliatu zuen bere liburuetan. Hori besterik ez: ordubeteko testigantza bat. Zorionez Ugueux idazle ona zen, eta liburuak entretenigarriak dira. Baina ikertu ahala, jendearekin hitz egin ahala, ohartu nintzen...

Ikuspuntu partziala zela, ez istorio osoa.

Hori da. Zera, baten bat lurrazpiko gordeleku batean egongo balitz bezala, periskopio batekin kanpora begira: ez du dena ikusten. Halako zerbait zen. Nik ahalik eta ikuspuntu gehien bildu nahi nituen, eta ohartu nintzen zaila zela, istorioa halako kondaira moduko bat bilakatu baitzen Mendiben. Herriko drama zen. Baina xehetasun guztiak alderantziz jaso zituzten. Ni kanpotar bat nintzen, eta zalantza neukan ea nirekin hitz egiteko prest agertuko ote zen jendea, baina banuen gauza bat nire alde: mendibetarrek bazekiten denbora asko pasa nuela Scheppens doktorearekin, eta horrek sentiarazi zidan nirekin fidatuko zirela, ez zutela pentsatuko ez nekiela ezertxo ere ez.

Biltzen saiatu zinen beste ikuspuntuetako bat Cette Scheppensena izan zen. Charlesen emaztea zen eta berak ere izan zuen



zerikusirik historian. Bikotearen bi umeen ardura berak hartu zuen tarte horretan guztian.

Scheppens andrearentzat oso historia traumatikoa zen, eta ez zuen gaiaz hitz egin nahi hasieran. Baina berehala konturatu nintzen haren ikuspegia behar nuela istorio ahalik eta osoena azaltzeko. Ikertzen hasi nintzenetik liburu argitaratu arte urte mordoak bat pasa ziren, eta besteak beste horregatik izan zen. Zain egon nintzen Scheppens andrea nirekin hitz egiteko prest egon arte.

Noiz izan zen hori?

1997an. Bestalde, liburuaren eraginari dagokionez, gauza guztiz hunkigarri bat gertatu zen. Liburu argitaratu ostean, lehenengo aldiz entzun nion Scheppens doktoreari esaten bere emaztea heroi bat zela. Hau da, liburuari esker, atzera begiratu eta ohartu zen zer-nolako ekarpena egin zuen bere emazteak.

Eta Scheppens andreak berak zer esan zizun?

“Maite dut liburu eta gorroto dut istorioa”.

Ufa.

Indartsua izan zen.

Liburuak bi hitzaurre dakartza, eta hain justu ere Aina Rodríguez Rolánen testuak emakumeen zeregin hori azpimarratzen du. Nola erresistentziari eta mugazeharkatzei buruzko istorioetan gizonen jarduna azpimarratu den, haiak pasatzen zirelako gehienbat, baina emakumeek ere berebiziko garrantzia zutela halako sareetan. Rodríguez Rolánen arabera, zure liburuan emakumeen presentzia hori ez da ezkututzen, eta eskertzekoa da. Ez duzu heroi nagusi bat bakarrik aurkezten, haren inguruko sare osoa ere erakusten duzu.

Bai, esate baterako Mendibeko sarearekin lan egiten zuten tabernari gehienak emakumeak ziren. Liburuaren hasieran badaude halako galdera orokor batzuk, ea zer gertatzen zaien heroiari gerra amaitu ostean, ea zer den heroi izatea eta abar. Eta liburuari esker ulertu eta ikasi ditudan gauzen artean, ohartu naiz heroiak bakarkako antzezle gisa aurkezten direla, baina berez sare bat dagoela haien inguruan edo atzean, sare baten jarduerak ahalbidetzen dituela dena delako heroi horren ekintzak. Ekintza miragarri horiek gutxietsi gabe, baina hala-koak gertatu ahal izateko badaude beste



babes-ekintza mordo bat itzaletan. Eta kasu honetan emakume mordo bat aritu ziren zeregin horietan. Mugalariak gizonak izan ziren gehienbat, baina horren aurreko eta osteko errelebo-guineetan emakumeek garrantzia handia izan zuten. Euskal Herriko emakumeak oso garrantzitsuak izan ziren.

Bart iritsi zinen Iruñera. Goizeko hamarretan elkartu gara elkarrizketa hau egiteko [maiatzaren 18an izan zen], eta horren ostean bazoaz hainbat leku ezagutzera argitaletxeko Nerea Fillatekin. Omenaldi bat ere egingo dizute. Gogotsu zaude?

Zorutzen nago. Sekulako plazera da istorio hau argitara ekartzea. Jendearentzat oso garrantzitsua da, baina ez dute ezagutzen, ez dute eskura izan. Miragarria da ezagutzera eman ahal izatea haren berri ez zuen jendeari. Espainiako aldean oso jende gutxi ezagutzen du, ez dakite zer-nolako garrantzia izan zuten Europako erresistentzia mugimenduan. Ikusezin zegoen zerbaiti argia ematearen modukoa da, eta hori oso esanguratsua da niretzat.

Informazioa biltzen jarraitzen omen duzu. Gustatuko litzaiduke beste liburu bat idaztea gai honen inguruan?

Bai, diozun moduan, liburu argitaratu zenetik informazioa pilatzen segitu dut, horren arabera bertsiok zuzentzen joan naiz, eta Katakraheko hau da denetan zehatzena orain arte. Gustatuko litzaidake berrikuspen oso bat egitea, falta diren kontu guztiak fintzeko, eta, horrez gainera, epilogo bat idaztea liburuaren eraginari buruz, eta liburu kaleratu ostean ikasi dudana guztiari buruz.

Amaitzeko, zuk gure herria ezagutu duzunez, zureaz galdetu nahi nizuke. Clevelanden (Ohio) jaiotzen, baina Vermont estatuan bizi zara aspalditik.

Bai, egia esan egunotako hitzaldietan Vermonti buruz hitz egiteko asmoa nuen. Mugako estatu bat da, Quebec-etik bi ordu dago, hegoalderantz. Berez museo handietan hasi nuen nire ibilbide profesionala, Clevelandeko Arte Museoan hain zuzen, eta Minneapolisekoan gero. Hasieran uste nuen halako lanetan



segituko nuela, baina hara non lanpostu berri bat sortu zen Vermonteko museo guztietako programaz arduratzeko: interesgarria iruditu zitzaidan, eta hartu egin ninduten. Pentsatzen nuen urte batzuk egingo nituela lan horretan eta gero berriro itzuliko nintzela erakunde handietara, baina ez, hantxe geratu nintzen. Orain erdi-erretiratuta nago.

Hitzaldietan Vermont aipatzeko asmoa zenuela esan didazu. Zergatik?

Uste dut badituela zenbait antzekotasun Euskal Herriarekin, eta horrela jendeak ikusiko du ez naizela Martekoa [barreak].

Hasteko, Vermonten 650.000 biztanle inguru gara, eta jende guztiak ezagutzen du jende guztia edo ahai-deak dira. Landa-eremuan bizi naiz, eta horrek nolabaiteko hurbiltasun bat eman zidan Mendiberekiko; ez zitzaidan guztiz arrotza gertatzen. Alderaketak egin nintzakeen, erreferentzia bat neukan. Eta paisaiak berak badu antzik Pirinioekin. Hortaz, beste kultura bat izanik ere, gauza batzuk ondo ulertzen ditut. ●

Audio eta bideoen transkripzio eta azpтитuluak

6 hizkuntza: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa

aditu.eus

Automatikoki eta minutu gutxian Editatzeko eta itzultzeko aukera



aditu
elhuyar





Zerk batzen gaitu?

Arrazismoa, matxismoa, klasmismoa, eta beste hamaika *ismo*-rekin batera koka genezake *edadismoa* ere, adinkeria, alegia. Adinaren arabera jasan daitekeen bazterketa guztiok paira bagenezake ere, bestelako diskriminazio motekin gurutzatzen denean, errealitatea gogortu egin daiteke. Simone de Beauvoir-ek, adibidez, *interseksionalitate* hitza erabili ez bazuen ere, bere lanean garbi islatu zuen zahartzaroan pertsona batek sozialki eta kulturalki pairatzen duen zigorra desberdina dela emakumea bada. Zer esanik ez, horri arraza kontua txertatzen badiogu!

Adinkeria, hala ere, bizitzako etapa desberdinetan gertatzen den fenomeno da. Biologikoki adin zehatz bat badugu ere, jendartean dauden ohitura eta pentsaerek sailkapen sozial moduko bat egiten dute. Horrela, gazteegiak edo zaharregiak izango gara jarduera jakin batzuetarako. Inork uste badu epaiketa horretatik salbu dagoela, inguruan gertatzen denari erreparatzea besterik ez du: gazteenei lan-jardueretarako, aldarrikapen politikoetarako edota sexualitaterako heldutasun falta egozten zaie, infantilizatu egiten dira hainbatetan; nagusiak, ordea, pasata daude, zaharregiak dira.

Osasunaren Mundu Erakundeak 2021ean adinkeriaren inguruan argitaratutako txostenaren arabera, diskriminazio mota hori jasaten duen gehiengoa adin nagusikoa da, hainbatetan zaintza beharrean dagoena; eta gazteenen

Guztiok aldaketa fisikoa izango dugu, zaintza beharko dugu, eta heriotza ere etorriko zaigu. Prozesu hori onartzea ez da lan makala, eta erresistentziak egon, badaude

artean, sufritzeko aukera gehiago dute emakumeek. Txosten horretan, jazarpena egiten duten lagunen profilari erreparatzea zinez interesgarria iruditu zait: gehienetan pertsona gazteak izan ohi dira, gizonezkoak nagusiki, hezkuntza eskasa jaso izan dute hainbatetan, eta kurioski, heriotzarekiko antsietatea dutenak izan ohi dira.

Hari-mutur ugari azaleratzen dituen gaia da, zalantzarik gabe. Urteen poderioz, guztiok aldaketa fisikoa izango dugu, zaugarritasun momentuak biziko ditugu, zaintza beharko dugu, eta heriotza ere etorriko zaigu, lehenago edo beranduago. Prozesu hori onartzea ez da lan makala, eta erresistentziak egon, badaude. Erresistentzia horien seinale da gaztetasuna mantentzeko zerbitzu eta produktuen katalogo



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

amaiezina. Bada modu aktiboan (batzuetan hiperaktiboan) bizitzeko bul-tzatzen gaituen uste bat ere. Ase beharreko beharrianak sortzen dizkigute, behin eta berriz; hainbatetan antsietate ikaragarriak sortuta.

Horretaz gain, iruditzen zait adinaren arabera gizartean egindako sailkapenek adin-talde horien arteko lehia ere eragiten dutela. Pentsiodunak, adibidez, pentsioen gehiegizko zenbatekoagatik seinatu ohi dira sektore batzuetatik. Gazteenetik etor daitezkeen mugimendu berritzaileak, berriz, alboratu edo irrigarri uzten dira hainbatetan. Helduetara mugatutako mundua balitz bezala. Adin taldeen zatiketa horien atzean, noski, seguru-etxeen interesak, erretiroa hartzeko adinaren luzapena eskatzen dutenen nahiak, edota gaztetasunari lotutako kanona mantentzea nahi duten lobbyak ditugu. Eta azken horiek adinkeriaren inguruan har ditzaketan diskurtsoak kezkarriak dira.

Egiatan, adinkeriaren problematikaren kontzientzia geroz eta zabalagoa da, eta mundu mailako zein tokiko ekimenak geroz eta ugariagoak dira. Belaunaldien arteko topaketek amankomunean ditugun hamaika gai jorratzeko balioko dute, hartu-eman sanoak eraikitzeko, nozituko ditugun aldaketei aurre egiteko, eta lankidetzaz sustatzeko. Baina horretarako geure burua zintzotasunez onartu, ezagutu eta ulertu beharko dugu lehendabizi; ezinbestekoa baita hurkoa onartu, ezagutu eta ulertzeko. ●

Literaturaren ahalak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



DOM CAMPISTRON

Zuzengabekeriak gainezka den mundu honetan, egoera oldargarriz inguraturik gaudela, behin eta berriz galdegiten diot ene buruari: zer ahal du literaturak, hoberantz egin dezagun? Literaturan murgilduta egotea ez ote da harresi itsu batzuen gibelean ezkutatzea eta irudimenez baizik ez ekitea, hainbeste nahigabe eta okerkeriaren aurka konkretuki lan egin beharrean? Literatura ahaltsua dea? Ahalduntzen ote gaitu?

Europako kultur eremu nagusi edo garaileetan, pentsatzen zen, aro erromantikoan, literaturak bat egiten zuela boterearekin, eta berehalako eragina ukan zezakeela jendartean. Frantzia, bereziki, Lamartine edo Hugo bezalakoek sinesten zuten literaturaren bidez bermatuko zirela ideia sozio-politiko aurreratuena, bai beren herrian, bai mundu osoan. Berantago, surrealisten pentsatu zuten mundua benetan kanbia zezakeela literaturak.

Baina XX. mendeak literatura-eraginkortasunaren baitako fedea zalantzan ezarri zuen. Korrante absurdoko autoreek erakustera eman zuten literatura indargabea dela. Kritikari batzuen aburuz, berriz, literaturak oraino dauka eragina, gutxienez errepresentazio kolektiboak molda-

tzeko, onera zein txarrera. V. Berthelien ikerlariak, adibidez, erakusten du mundu osoko nazionalistak beldurrarazten dituen etorkin uholde mitoa eraikitzen lagundu duela literaturak: R. Camus ("*le grand remplacement*" edo "ordezkatzeko handia" adierazpidearen asmatzailea), Y. Gandon, L.-F. Céline, J. Raspail, E. Cioran, R. Millet bezalako idazleek ahalbidetu dute, beren obrei esker, arrazakeriaren presentzia indartsua, Frantzia, Berthelien ustez. Alderantziz, Kafkaren zioen idazleek arma paregabeak dauzkatela intolerantzia eta injustiziaren kontra borrokatzeko.

Eta bazter alorrean, galtzaileen esparruan, zer? Menturaz, kultur esparru handietan baino garrantzi sozial, politikoa eta sinboliko handiagoa dauka literaturak, kontra-botere leku indartsua izan daitekeelako. Hala nola literatura performatiboa hor dugu: Antton Lukuk irakasten zuen bertsolaritza funtzioetarik bat dela, hain zuzen ere, botere nagusiaren kontra jartzea. Gogoan dut ere Perun sortu den "*lucha libro*" gudu literarioa, *catch*-aren eredu oinarritua: bi idazleek testu bana inprobisatu behar dute, epaile den publikoaren aitzinean, joko-gidari baten agindupean. Entzule-ikusleak li-

luratu behar dituzte performatzaileek, argitaratua izateko baimena irabazteko. Perun, dio Christopher Heaney-k, gudu-lari gehienak gazteak eta emazteak dira, eta literatura-ikuskitza erabiltzen dute beren ahotsa adierazteko.

Gurean, literaturak balio du ere kontsolatzeko, dio Xabier Letek. Balio du gogoratzeko, memoria elikatzeko, iragana gureganatzeko. Balio du gure mitoak eraikitzeko. Balio du gure oraina islatzeko, salatzen eta etorkizuna amesteko.

Balio du, azkenean, muga politiko, ideologiko, linguistikoetatik haratago loturak egiteko, hots, pasatzaile izateko (P. Jaccottet-ek zioen bere ofizioa zela "pasatzaile" izatea). Hori dute xede analogiari, metaforari edo itzulpeningintzari protagonismo bera ematen dioten idazleek. Ikus, narrazioaren eremuan, P. Zubizarretaren *Usoa, hegan etorritako neskatoa*, zointan Kasai, haur adoptatua, txori migratzaileari konparatua den; edo A. Arzallusen *Miñan*, pularrez pentsatzen duen afrikar baten frantseseko kontaktaren euskarazko testu idatzia dena.

Ea ba gure literatura ahaltsu eta ahalduntzaileago egin genezakeen oraindik, mundu zentzudunagoa eraikitzeko. ●



IÑIGO MARTINEZ PEÑA
FILOSOFOA

Den-dena eros ote daiteke?

Egun, lagunak erosteko aplikazio asko daude: *AlquiFriend* eta *Ameego* dira ezagunenak, eta, antza, oso ondo funtzionatzen dute, batez ere Ameriketako Estatu Batuetako hiri handietan. 600.000 erabiltzaile inguru dituzte. 120 dolar norbaiti ordaindu, eta ordu pare batez zurekin joango da nahi duzun jatetxera, erosketak egitera edo paseatzera. Egiten dituzun txisteei gogoz egingo die barre eta izugarrizko arreta jarriko die esaten dituzun gauza guztiei. Eztabaidarik eta desadostasunik gabe zurekin egoteko konpainia. Lagunaren jaun eta jabe izango zara!

Izan ere, merkatuak edozer gauza objektu bihurtu nahi du eta gure esku jarri. Baina posible al da? Ba al dago zerbait merkatuaren atzaparretatik kanpo, eskuraezin?

Agian, egungo bizitzaren merkantilizazioak bi gauza desberdin nahasten ditu: zerbait erostea, haren jabe izatea, eta zerbaitekin erresonantzia egotea. Eta ez datoz bat. Publizistek merkantzien erresonantzia aurreikusi nahi dute, esperientziak saltzen dizkigute. Baina baliteke kontzertu baterako eserlekurik garestienak erostea eta kontzertuak ni ez hunkitzea, ezer ez esatea. Ezin da “gaur hunkituko naiz!” planifikatu, “kontzerturako sarrerak erosi ditut eta horri dagokion bizipena

izateko eskubidea daukat! Nola ez dit oilo-ipurdia jarri hainbeste ordaindu eta gero?”.

Hori da Hartmunt Rosa pentsalariak ikertutako kontraesana *Eskuraezina* deituriko saiakera ederrean. Liburua elurteen inguruko hausnarketa batekin hasten da: “Gogoratzen duzu nola bizi izan zenuen lehen elurtea umea zine-nean?”. Elurra bat-batean bisitan etortzen zitzaigun, iheskorra zen, ezohikoa, mundua gure esku-hartzerik gabe eraldatzen zuen: ustekabeko opari moduko bat. Eta eskuraezinarekin topo egite horretan datza bizipozaren esperientzia. Zein da, ordea, idazlearen hipotesia? Egungo gizarteak dena eskura jarri eta denaren jabe egin nahi gaituen heinean, bizipozetik gero eta gehiago urruntzen gaituela. Kontraesan potoloa! Baina, egia esan, oso bestelakoak dira jabetzaren edo erresonantziaren logika.

Erresonantzia, hala ere, ez da mundu ikuskera bat, baizik eta munduarekiko erlazio musikal bat... Egun, aldiz, musika leku guztietan jartzeko joera dago: supermerkatuan, itzarongelan edota igogailuan. Gauzek abesteari utzi dioten seinale? Hegoak ebaki dizkiegu eta txori izateari utzi diote? Rilkeren hitzak gogoratuz: gauzen kantua entzutea gusatzan zait, baina gauzak erosten ditut eta mutu geratzen dira. ●

Aireportuak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Ana María Matuteri irakurri nion behin aireportuetan ematen diren muxuak benetakoagoak direla ezkontzatan ematen direnak baino, eta gauza bera gertatzen dela otoitzekin, alegia, zintzoagoak direla ospitaletakoak elizetakoak baino. Eta hementxe nago ni, Noingo aireportuan, larunbat goiz batez. Aireportuko soziologia eginez, bi eratako jendea egoten da Madriletik heldu den hegazkinaren zain: Latinamerikatik heldu diren familiartekoen zain daudenak eta aitaren zain -bai, *aita* esan dut- egoten

diren umeak, normalean amarekin. Giltzak eta parkingeko tiketa edukitzen ditut nik eskutan, handik ahalik eta lasterren ateratzeko. Zain daudenean artean, berriz, beti dago eskuz eginiko afixaren bat duena ongietorria emateko. Niri inoiz ez didatela hori egin pentsatu dut, baina bai lotsatu naizela *Embassy of Spain* afixarekin egon direnean nire zain, ondoko eserlekuan zegoenari kontatu diodanean euskara dela nire hizkuntza, euskal herritarra naizela... Izan ere, muxuen gisan, benetakoagoak al dira aireportuetako afixak? ●

Soka izan



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZETZLEA ETA
SORTZAILEA

A benduaren 18an migratzaileen nazioarteko eguna ospatzen da. Iaz Bilboko Alhondigan ekitaldi instituzionala egin zen eragile sozialekin batera, eta ni parte hartzera gonbidatu ninduten. Aukera ezin hobea izan nuen han sortzaile berriak ezagutzeko eta, batez ere, Miren Agur Meaberen olerkiak irakurtzeko eta interpretatzeko. “Zelako oparia!”, pentsatu nuen. Poesia maite dut. Mirenen poesiak liluratu egiten nau, eta horretaz gain, bera miretsi egiten dut. Poema horiek argitaratu gabe daude, ez euskaraz, ez gaztelaniaz, pentsa ezazue, altxorra eskuartean.

Irakurri nituenean berehala sentitu nuen gordetzen duten egia, haietan neure burua islaturik ikusi nuen. Hitz bakoitzak hitz egiten zidan, nire migrazio-bidaia gorputzean jantzi zidan, izan nintzena ekarri zidan burura, lurralde honetara iritsi zen hura eta gaur naizena. Nire emozio-prozesu guztiak pilatu zitzaizkidan bat-batean. Eta nolabait, aske sentitu nintzen. Ulertua, kontuan hartua, errespetu sakonetik begiratu. Olerki haiek hunkitu egin ninduten.

Aurkezpena bukatu ondoren, egun batzuk pasatuta, zera pentsatu nuen: “Ze ederra izango litzatekeen Euskal Herrian barna ibiltzea poema horiek

Kolonbiatik etorritakook
hemen bizi gara.
Zoazen lekura zoazela,
bertako kultura izanen
da han. Eta ez mehatxu
gisa, baizik eta ulertua
izateko zain, ikasia
izateko zain

partekatzen”. Ze aukera aproposa ikuspegi ezberdinak elkartzeko, hangoek eta hemengoek elkar ezagutzeko. Pentsamendua eta sentsibilitatea sortzen laguntzeko. “Nire Kolonbiako danborra erabili behar dut, *performance* txiki bat sortuko dut”, esan nion neure buruari. Baina kokoteraino nagoenez bakarrik eta dirurik gabe sortzeaz, azazkalekin lan egiteaz, proiektua sortu baino lehen babesa eta dirulaguntza bilatu nahi nituen.

Agian, hasteko, Kolonbiako kontsulatura jotzea aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen. Hitzordua eskatu nuen eta eman egin zidaten. Kontsularekin ilusioz beteta bildu nintzen bere bule-

goan, proiektuaren berri emateko. Nire harridurarako, bere aurrean eseri nintzenean esan zidan lehen gauza zera izan zen: “Hemen egiten ditugun jarduera guztiak gaztelaniaz egiten ditugu, interesatzen zaiguna Kolonbiako kultura sustatzea da”. Begiak plater. Aditzaile onari, hitz gutxi. Ados, ulertzen dut. Nire baitara bildu nintzen. Bilera bukatu ondoren, Bilboko Kale Nagusira atera nintzenean, pena handia sentitu nuen, lotsa. Zergatik ez sortu kulturen arteko zubiak? Zergatik ez hurbildu Kolonbiako jendea hemengo kulturara? Zergatik ez sustatu elkarbizitza? Azken finean, Kolonbiatik etorritakook hemen bizi gara. Hemen edo beste edozein lekutan. Zoazen lekura zoazela, bertako kultura izanen da han, hura edo bestea, baina beti izango da bertako kultura bat edo batzuk. Eta ez mehatxu gisa, baizik eta ulertua izateko zain, ikasia izateko zain.

“Soka izan bideetan ez galtzeko. Zerotik hasita. Zerotik hasita, zure lau hormen artetik abiatuta. Labirinto batean ibili. Labirinto batean ibili eta fenix hegaztia topatu bihurguneetan. Zure izena ahoskatu. Zure izena ahoskatu, zure izenak zure patua bilduko balu bezala. Egia zahar bat xuxurlatu. Egia zahar bat xuxurlatu. Denok gara migrari”. Miren Agur Meabe. ●

Basherrri
SAREA
OPROZKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus



2024 Baserriko uzta

Ekainak 22
Larunbata

BISITA

**Urteaga
Urkulegi
etxaldea**

Itsaso



urteaga.urkulegi

KONTZERTUA

Jon Maia
KANTU BAT GARA
Gorka Hermosa eta
Pello Ramirezekin

BAZKARIA

Eguneko sarrera 30€
6-12 urte 15€ • 0-5 urte doan

Izen-emateak eta
informazio gehiago:

ehkolektiboa.eus

ANTOLATZAILEA

Ehkolektiboa
AGROEKOLOGIAREN BIDEAN

LAGUNTAILEAK



E LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

hazi

ARGIA



Nondik datoz
Pixontziak?



ZIBURUKO V. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Zin degizut, *euskara eta bagara*

Ziburuko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka iragan da ekainaren 1ean, 40 bat argitaletxe eta diskoetxe eta milaz gora bisitari elkartuz herriko plazan. *Euskara ala ez* lelotzat zeukan bosgarren edizio horren balorapen baikorra egin dute antolatzaileek: jendetza bertaratu da, euskara hutsezko plaza bat osatu izana eskertu dute parte hartzaileek eta argitaletxe zein diskoetxeekin ukandako balorapen informalei fidatuz gero, horiek ere poz-pez itzuli dira etxera.

 JENOFA BERHOKOIRIGAIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Agendan finkatzen ari gara, hitzordu bilakatzen ari gara”, dio batak eta “hitzordu bilakatu gara” ñabardura bideratzen dio besteak. Barra izkineko balorapen une informalean dabilta Baltsan elkarteko eta ARGIA komunikabideko kide zenbait. Gaueko hamarrak pasaño, azoka gunea desmuntaturik eta arduren karga bizkar gainetik kendurik, tradizio bihurtu duten gin-tonicarekin topa egin diote Ziburuko Liburu eta Disko Azokaren bosgarren edizioari, erabat akiturik baina poz-pez.

Beste behin bertaratu zaielako jendea azokara: Zarautz, Elizondo, Ortzaize, Arrangoitze, Zornotza, Iruña, Sara, Baigorri, Zumaia, Baiona, Irun, Oza... Euskal Herriko txoko ezberdinetakoak batu dira Ziburuko plazan, *euskara ala ez* lelopean osaturiko azokaren kari. Euskara ala ez gara hautapenari behin-

goan “euskara eta bagara” ihardesteko eguna izan zuten frantses ozeano baten erdian ofizialtasunik gabe euskaraz bizi nahian dabilta lekukoek. Euskara hutsean egun bat bizitzeko aukerak Ipar Euskal Herrian duen bakantasuna azpimarratuz, “jendea eskertua sentitzen da, heldu zaizu eskertzer”, ohartarazten zebilen antolatzaileetarikoa Maddi Zubeldia. Azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, %20,1 delako euskal hiztuna Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi mailan, eta horrek dakarrelako, azkenean, euskara nagusiki ala frantsesa bezainbeste erabiltzen dutenak %7,1 izatea. Testuinguru horretan dabilta euskara hutsezko plaza bat eskaintzen antolatzaile diren Baltsan eta ARGIA. Bosgarren edizioa izan dute ekainaren 1ean, eta milaz gora bisitarik erantzun diote gomitari.

Daniel Landart kultur gile “umila, lan-gilea, luma ederrekoa eta militantea” omenduz hasi zuten eguna, 60 urtez euskal kulturari emandako “uzta emankor eta aberatsa” azpimarratuz. Esker onez eta “bozkarioz” hartu zuen omenaldia eta bere duen xumetasunetik hitz egin zuen, bizian ondoan ukan dituenak eskertuz: euskara landuaren musika helarazi zion amatxi, ezaguturiko euskaltzale eta abertzale suharrak –Jean Hiriart-Urruty, Marcel Etchehandy, Xabier Elozegi eta Jean-Louis Davant–, Piarres Larzabal eta Telesforo Monzon, liburuak agertu aitzin laguntzen egondakoak –Pierre Narbaitz, Gexan Alfaró Lantziri, Beñat Oyharçabal, Piarres Charriton, Andolin Eguzkitza, Jon Cazenave eta Ladix Arrosagaray–, bere komerien jokalaria eta bere hitzak musikatzen eta kantatu dizkieten artistak, ukandako publiko nasaia eta irakurleak, Euskal

Kultur Erakundeak ukandako bi zuzendari eta lankide ohiak eta azkenik, omentzen ari zitzaien Maialen Tapia eta azken aldiaren elkarrizketatzen aritu zaizkion kazetariak. Mikrofonoa eskuan, publiko arretatsuen baten aitzinean, antzerkigintzaren aritu ziren ondotik Arantxa Hirigoiaren antzerkilariarekin batera, Gorka Peñagarikano kazetaria zutelarik galdera pausatzaile.

Landarten hitzetatik *Pelax* taldearen rock doinueta salto eginen zuten entzuleak, atera berri duen *Esan gabe doa* diskoak abesti zenbait jasoz. Kontzertuetarako gune ere badelako iaztik Ziburuko hitzordua. Diskoetxeei leku gehiago eskaintzeko xedez abiatu zituzten aitzineko edizioaren orain erdiko kontzertu ttipiak. Funtsean, liburu aurkezpen baten antzera, zuzenezkoa jaso ondoren, sortzailearekin solasteko edota diskoa erosteko aukerak dituzte karpapean entzuleak. Aurtengoan, *Pelax*-ez gain, baxenabartar Paxkal Irigoien eta

Maia Iribarnek osaturiko *Bloñ* bikote liluragarria entzun ahal izan zen bazkalondoa. Hor ere mundu bat, poetikoa eta erakargarria, publikoak eskerturikoa, batzuk seguruenik bertan deskubriturikoa. *Han* kantuko *"gure buruari egindako errespetu promesa"* behin eta berriz ozenki errepikatuz bukatu zuten emanaldia, eta bakoitzak segitu zuten berean, mantra hori sakonean gorderik. Ondotik, Alayn Carazo eta Iosu Isaias Villanueva *Isuo* bikotearen *Hegazkin* taldeak hartu zuten oholza, sintetizadore eta gitarraren soinuei ahotsa gehituz, batzuetan motelago besteetan arinago, soinu errepikakorrez urrutira eramanez entzulegoa. Inguru horietakoa den *Lumi* taldearekin bukatu zen eskaintza musikalak, arrastirian, bikoteak lagunak eta jarraitzaileak hor zitelarik giroa berotzen laguntzeko. Edo, agian, egun bukarako taldea izateak zekarren hori: eguna aitzinatu arau, berotuz joan zelako giroa,

goizeko edo bazkalondoko kafe kikarek garagardo basoek hartu ahala lekua.

Paperezko poltsak agergai zirenen entzulearen ondoan pausatuz, azokaren itzulia egin zutenaren froga ukazina. Egitarau kultural oparoa izanik ere, oinarrian hori duelako hitzordua: Euskal Herriko 40 bat argitaletxe eta diskoetxe biltzen dituen gunea da. Hori, neurrian, hau da, neurri ttipian, sortzaile eta jasotzailearen arteko hartu-eman bermatzeko gisan. Ezaugarri hori inportantea zaio *Etxe bat norberarena* liburu aurkezten egondako Yolanda Arrietari. Eskertu du, funtsean, liburu aurkezpen salmenta gune apartekokaturiko karpak ttipian egin izana: "Artearen alde onuragarriak eta osasungarria jasotzeko gune lasaiak behar ditugu. (...) Zaindu behar dugu espazioa, elkarrekin egoteko, elkarrekin hitz egiteko espazioak behar ditugu; azoka bilkura bat da, euskaldunen arteko bilkura bat eta gure harremana hitzeko da, eta harreman hori



Daniel Landart izan da aurtengo omendua, 60 urtez euskal kulturari ekarritako "uzta emankor eta aberatsagatik".



Bloñ (goiko argazkia), Pelax, Hegazkin eta Lumi taldeak egon dira aurtengo oholza gainean, orain erdiko kontzertua eskaintzen publikoari.



Solasean aritzeko aukera ematen duen azoka horietarikoa da Ziburukoa.



ez du laguntzen zaratak. Ekimen handiak ongi dira, baina txikiak behar ditugu, hitzari garrantzia bideratzeko, hitzari eta isiltasunari ere".

Beste osagai garrantzitsu bat bota zuen aurkezpenean, ondotik sortzaileekin hitz egiterakoan kazetariari azaleratzen zitzaion egiaztapen bat: "Sortzea ez da bakarrik liburu bat sortzea, hori merkatua da". Sortzea, dagoen hori antzematea da, dagoenari beste forma bat ematea, ez dagoena baina izan daitekeen hori kausitzea da, galdera berriak sortzea eta erantzun ezberdinak irudikatzea... hori guztia da sormena Arrietaren arabera.

Hori da idazlearen eta musikariaren funtsa, eta horretan dabilta, nahiz eta ekonomikoki ez duten beti bide luze, emankor eta leuna. Ekhi Lambert musikariarekin solasean hasi eta laster azaleratzen zaizkio bere barne mamu, galdera, kontraerrian eta zalantzak. "Sorkuntzaren euforian" gustura egon ondoren, promo-

"Etxetik lanean, sare sozialetatik, ordenagailu gibeletik... nahiago dut hemen egon. Aire hartze bat zait azoka"

Ekhi Lambert

zioarena tokatzen zaio orain eta ez du ariketarik erosoena: "Irudiaren kontu hori... irudiaren tirania ez da erraza", "bakoitzaren egoa dabil hor dantzan, eta enpresa handiek dute horretaz profitatzen". Baina hortik pasa beharra dauka, eta sare sozialetan egoteko hautu mikatza ere egin berri du. Azokan atxiki du mahaia, Muku eta

Xofaldia diskoetxeetako lagunekin batera. Entzulearekilako trukaketarako espazioa eskertzen du: "Etxetik lanean, sare sozialetatik, ordenagailu atzetik... nahiago dut hemendik bideratu nirea. Azokak mundua ezin du aldatu, baina alternatiba bat da, aire hartze bat da".

Irakurlearekin egoteko une horren inportantzia azpimarratzen du *Mesfida zaitetz* liburua atera berri duen Bea Sallaberri ere. Bakarrik euskaraz publikaturiko liburuen plaza izateak dakarrena ere argi du: "Euskal litaraturaren baitan dugun aniztasun handia agerian gelditzen da, eta hori anitz da ikusia izateko aukera ematen diozulako euskarazko ekoizpenari. Pentsa, batzuetan liburu bat atera dela ez da jakiten ere ez, hori terriblea da idazlearentzat". Literaturako izen handi, hasi berri ala aspaldiko idazle, Ziburuko plazan juntatu ohi da euskal idazleen mundua. Hor egon da, beste urte batez Auxtin Zamora *Hatsaren Poesia* liburua aurkezten:



Bertsoak eta marrazkiak nahasten dituen Zirriboroka saioa egin dute aurtengo edizioan ere.



Irri karkaila andana entzun da Txiki-ren umorezko saioan.



BTNren saio berezia grabatu genuen Ziburuko Azokatik. Yolanda Arrieta eta Bea Salaberri dira gomituak.

“ ”

Antzerkia emana izateko da, gordetzeko baino

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Antzerkiak zein toki du Ziburuko euskal liburu eta azokaren gisako erakusleho batean? Edo, beste era batera esanda, antzerkiak zenbat du literaturatik? Galdera hori izan dute abiapuntu Daniel Landart eta Arantxa Hirigoienek azokaren irekitze ekitaldiko *Zubiburu* mahai inguruan. Ordu erdi pasaz solastatu dira antzerkiaz, antzerkiaren soiltasunaz, aktore amateur eta profesionalen arteko orekaz, Bidasoaz gaindi aritzearen premiaz, euskal antzerkigintzaren bilakaeraz...

20 urtez egin du lan antzerkian Daniel Landartek. Gazte-gaztetatik hasi zen irakurtzen, eta eskribitu ere idazki mordoxka bat egin ditu, literatura zabalean, eta antzerkira zuzendu dira obra asko. “Lehen ere guti irakurtzen zen eta orain ere bai”, esan du Landartek, mikroa eskuetan hartu eta mintzatzaren hasi orduko: “Horregatik, antzerkiak balio du horretara gerturatzeke”. Alegia, irakurriko ez duenarengana heltzeko. Landarten hitzei zera gehitu die Arantxa Hirigoienek antzezleak: “Antzerkia eta literatura estuki lotuak dira, ahozkotasunean hartzen baitu forma, eta antzerkia ahozko literatura da”.

Ahozkoa, baina, ez da sarri idatzizkora ekartzen, nahiz jatorriz idatzia izan. Antzerki-obra liburura ekarri arren, teorizazio jasorik gutxi duen diziplina artistikoa da euskarazko antzerkia. Landartek ez du uste problema denik, “gazteek egingo duzue hori” esan du, eta oinarrira jo: “Antzerkia emana izateko da, horrela ulertzen dut, ez apaletan gordetzeko”.

Hirigoienek eta Axut! kolektiboko kideek maiatzaren 31n estreinatu dute *Lurrez estali* antzezlan, Izuran. Hasi aurretik ja saio guztietarako sarreak amaituta zeuden. Poztekoa zentzu horretan, euskal antzerkiak bizi-bizi jarraitzen duelako, baina Hirigoienek azpimarratu duen gisara, mamiai erreparatu behar zaio: *Lurrez estali* antzezlanak laborantzaren tragedia



Daniel Landart eta Arantxa Hirigoiene, Gorka Peñagarikano kazetariaren galderei segika mintzatzaren, *Zubiburu* mahai inguruan.

“ ”

Gure historia eta istorioak kontatzeko balio du antzerkiak
Arantxa Hirigoiene

kontatzen du, hiritik baserrira doazen bizipenak, poltsa bete diru duten aberaskumeak... Imajina daitezkeen kontuak, errealistak, umore puntutik kontatuak.

Benetako bizipenak, eta halako tragedia bat, zergatik kontatu antzerki eran? Hirigoienek argi du: “Funtzio soziala du antzerkiak, gure historia eta istorioak kontatzeko, eta aldarrikapen tresna bat ere izan daiteke. Gure herriko historia kontatu nahi dugu, guk geurea eta geure maneran”.

Hona Landartek erantsi diona: “1965era arte ez genion *antzerkia* deitzen, baizik eta *komedia*, frantsesen eraginez, irri egiteko zerbait zelako. Baina antzerki herrikoien funtzioa bestelakoa da: liluramendu batean sartzea, baina gaurko ideiak, geureak, geuk jostatzea”.

Funtzioa ez da aldatu, baina bidea urratsez urrats egin da. 1967an Antzerkilarien Biltzarra sortu zuten Landartek eta enparauek, eta 1977an estreinako Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra egin. Mende berria heldu arte, problemak gainditzen joan ziren: “Oso zaila zen, belarriaren problema geneukan. Hegoaldeko taldeak Iparraldera ekarri eta hiru laurdena ez genien ulertzen. Azpeitian, gogoan dut, 1983an, geure obra tik hitz bakarria ulertu zutela, latinez zelako. Zailtasunak genituen guztiok, eta euskara batuari esker erraztu da komunikazioa. Orain, heringo talde bat mugitu daiteke Euskal Herri osoan”.

"Plazer bat da hemen izatea, gure ideien pasarazteko aukera da. Liburu guti saltzen badugu ere, hitz anitz zabaltzen ditugu. Dena dela, guk beti erran izan dugu poesia ez dela saltzen, poesia egiten dela".

Maiatz argitaletxearekin poesia liburu atera berri du Maddi Sarasuak ere, jorratzen dabilen bertsolaritzaren bidetik olerkigintzara emanaz saltoa. *Biharraren hegietan* izena jarri dio lehen liburuari, aspalditik pilatuz joan zaizkion testuen bilketa bat denari: "Betidanik anitz testu idatzi izan dut, anitz gogoeta eta batzuk poesiaren forma hartu izan dute. Ahizpak kantuetarako galdeturik, berriz aterra nituen eta hor ohartu nintzen nuenaz.

Parisera ere zuzendu zitzaien mezua azokatik, 'Azterketak euskaraz' pankarta oholtzara igoz eta argazkia ateraz

Interesgarria zitzaidan, bizipen, gogoea, jarrera eta amets batzuk irudikatzen balio zutelako". Mamia izanik ere, liburu bihurtzeko urratsa ez zaio erraza izan eta bidean Luzien Etxezaharretaren eta Peru Iparragirreraren partetik ukandako sustengua eskertzen ditu. Ideia politikoen transmisiorako ere erreminta interesgarria zaio olerkia, mugimendu sozialistako kide ere den Sarasuari. Liburu bihurtzearen urrats zailena gauditurik, zabalpenerako gogotsu dago eta ezer argi ez baldin badu ere, baliteke irakurtaldi edota poesia musikatuaren forma hartzea zabalpenak.

Generoaren aniztasunaren ispilu ere izan nahi du azokak eta horren isla da, demagun, liburu aurkezpenetan genero bakoitzetik izatea bat: poesia, nobela, itzulpengintza, komikia eta saiakera. Komikigintzari dagokionez, Harriet, Xabiroi

eta Herrima argitaletxeak zein Tupust kolektibo feministakoak egon dira Ziburuko plazan. Nahiz eta gauzek hobera egin eta euskarazko komikigintzak geroz eta uzta handiagoa ukan, lortzeko oraindik anitz gelditzen dela uste dute Tupust-eko Ainara Azpiazu *Axpi* eta Maite Caballerok. Diotenaz, ondoko herrialdeetan komikiak duen lekuari begiratu gero, konturatzen zara Euskal Herrian duen toki murrizaz, eta horrek balio du osagai kulturala azpimarratzeko: "Komikigintza ez da kontsideratzen literaturako arlo bezala"; "arlo oso murriz bezala ikusten da komikigintza; mila gauza kontatzeko gaitasuna daukan medio bezala ez da ikusten", eta oro har, "ez gara bereziki kultura bisuala lantzen duena jendarte bat". Horregatik ere zaie inportantea Ziburuko Azokan egotearena: ikuspuntuak eta aurreiritziak aldatzeko eta komikigintzari buruzko urrats bat gehiago emanarazteko irakurzaleari.

Argitaletxe ez den eragile bat zegoen azokan, Hatsaren Poesia eta Zirrinta argitaletxearen artean: Haria. Mirentxu Ibargarai lakartarrak sorturiko elkarte, eta haur eta gazte literatura zabaltzeko harpidetza sistema bat muntatu berri duena: hilabetero euskarazko liburu bat bidaltzen dio harpidedunari, ipuinaren audioarekin eta helduei zuzendutako aurkezpen dokumentu batekin. Beste behin, Ipar Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoan euskarari esparru berri bat emateko xedez osatutako proiektua da: umea ikastolan edota sail elebidunean duten gurasoentzako tresna izan nahi du, baina ez bakarrik, azkenean, euskarazko literatura eskuratzeko liburu denda arras guti izanik, eskaera orokorrago bati erantzuten dabilelako. "Haurren artean dagoen irakurzaletasuna harrigarria da, haurrak beti lotzen dira album ilustratuei. Horregatik da inportantea euskara eremu horretan egotea. Ama hizkuntza euskara ez dutenek bizi behar dituzte emozio momentu horiek euskaraz". Bistan denez, argitaletxeekin zuzenean erlazioatzeko eguna zuen Ibargarai, eta bera bezala beste guztiek ere, funtsean. Hori du gustuko lehen aldi-

koz bertan egondako 1545 argitaletzeko Xabi Salaberriak: "Urtero egon naiz ikusle bezala, eta oso-oso gustura egon naiz, giro berezia duelako azoka honek. Aurten mahaia hartu dugu, parte hartzeko gogoia ematen duen azoka delako. Gu, berez, ez gara azoka askotan egoten, ez garelako horretatik bizi, ni berez irakaslea naiz. Baina Ziburun egon nahi genuen".

Eta horrela iragan da azoka, kontu-kontari bata eta bestearekin, mahai batetik bestera, liburu eta diskoen artean joan-jinka, karpatik atera eta ekimen kultural bat kausitzeko bermearekin: liburu aurkezpenak, kontzertuak, Txiki-uren umorezko bakarrizketa, haurren-


"Euskara hutsezko azoka izanik, euskal literaturaren baitako aniztasun handia agerian gelditzen da"

Bea Salaberri

tzako tailer zenbait edota Mattin eta Amane Apalategi marrazkilariek eta Maddi Sarasua eta Maddi Ane Txopere-
na bertsolariek osaturiko Zirriborroka.

Parisera ere zuzendu zitzaien mezua azokatik, hain justu, Frantziako Estatuaren menpe diren hizkuntza gutxituen aitortpena aldarrikatzeko mobilizazio eguna zelako ekainaren 1a. *Azterketak euskaraz* pankarta oholtza gainera igo eta argazkia atera zitzaien. Politikoki, begirada Palestinara bideratzeko hautua ere egin zen, liburu aurkezpenetan Katakak-ek plazaraturiko Mohammed El-Kurd palestinarren *Rifqa* liburuaren itzulpena sartzeko hautua eginez. *Honengatik egiten dugu dantza* olerkia irakurri eta Gazan bideraturiko genozidioa gogora ekarri zuen itzultzaile Eider Behobidek. ●


BABESLEA:



HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLI, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry





Rodríguezekin eta Wagensbergekin izandako solasaldia bideoz grabatu dugu: argia.eus/multimedia/erreportajeak

“ ”

Ez dugu auzi justurik edukiko; gidoi hau lehendik idatzita zegoen

JESÚS RODRÍGUEZ ETA RUBEN WAGENSBERG
TSUNAMI AUZIAGATIK, ERBESTEAN

Espainiako Gobernuak onartu berri duen Amnistia Legeak ez ditu zigortutako katalan guztiak bakean utziko. Batzuek erbestean segitzen dute, eta segituko dute, ea noiz arte. Baina beste batzuk berriki joan dira, ustez “gatazka” amaitzear zegoenean, alderdiak Amnistia Legea negoziatzen ari zirenean. Espainiako Auzitegi Nazionalak mahai azpitik atera du terrorismo delitua, pertsona batzuk Amnistia Legetik kanpo gera daitezzen.



GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA



MANEX MORENO UHARTE / ARGIA CC BY SA

Euria atergabe aritzen den hirian, eguzkiak hartu du maiatzaren hondarreko asteburua. “Estreinakoz horrelako eguraldi ona”, esan dio ARGIAri Genevan (Suitza) lur hartu eta gutxira Jesús Rodríguezek. Eguraldi ederra ere egiten du Genevan, baina uda sasoian; azarotik bertan bizitzen daramatenek ez dute horrelakorik ezagutu orain arte. Telefonoari so dabil Rodríguez, ARGIA-

rena ez ezik, beste bisita bat ere kudeatu behar duelako arratsaldean. Ez da lehenbizikoa, ezta azkenekoa izango ere. Bisita ugari jaso ohi dituzte Suitzan dauden katalan erbesteratuek, bereziki oraintsu alde egin dutenek, ez baita erraza seizazpi urte kanpoan eman eta jendeak hain sarri bisitak egiten jarraitzea.

Joan-etorri handiko hiria da Geneva. Bisitariak beso zabalik hartzen ditu

Suitzak, baldin eta joan bezala itzultzen bazara, edo diru asko ekartzera baldin bazatoz. Edo lanera, baina gutxienez hilean 5.000 euro irabaztera. Egunero-egunero 40.000 frantses inguruk gurtzatzen dute muga, lanera joateko. Badu arrazoia horrek, batzbesteko soldata hilean 8.000 eurotik ez oso urrun baitago. Pentsa, beraz, han bizia egitea zein garestia den.



Safra Sarasin

TOP MANTA

Katalanentzat erbestealdirako toki ona da, ordea: gertu samar dagoelako, hasteko, baina baita Suitzako Gobernuak Kataluniako auzi-politikoak Espainiak ez bezala ulertzen duelako ere; hargatik ez du Espainiako botere judizialarekin kolaboratu nahi izan.

Katalanek terrenoa prestatuta zuten 2017az geroztik. Oraindik han segitzen dutenek lagundu diete etorri berriei egokitzapenean. Gutxienekoak bermatu dituzte, etxebizitza-eta. Mentalki prestatzea, baina, ez da hain erraza, are gutxiago hain kasu mediatikoaren erdian. Berezitasun puntu bat gehiago izan dute ARGIArekin egon diren data-bueltan: Amnistia Legea onartzeko egun gutxi falta ziren; besterik ez zegoen haien buruan.

Zer moduz zaudete?

Jesús Rodríguez: Egokitzen ari gara. Erabakia hartu, etorri eta hemen lur hartzea zaila izan zen. Ez zegoen aurreikusita, ez prestatuta. Hutsetik hasi behar izan dugu. Dagoeneko urte erdia daramagu hemen eta esan dezaket, bion kasuan, bermatuta ditugula bizitzeko

gutxienekoak. Maila pertsonalean, ni neu, ondo nago. Jakina, ziurgabetasuna oso handia da.

Nola egiten da alde, presaka? Zer gorputzaldirekin?

Ruben Wagensberg: Gure auzia, bes-teen aldean, oso-oso mediatikoa izan da hasieratik. Hainbeste filtrazio eta informazio egon direnez, kalibratu ahal izan dugu gure egoera, eta ikusiz joan gara zenbaterainoko arriskua geneukan Espainiako Estatuan geratuta.

Zergatik Genevara?

Rodríguez: Oinarrizko giza eskubideak errespetatzeko bermea da. Hiri honek badu ibilbide esanguratsua giza eskubideen alorreko erakunde eta entitateekin [Nazio Batuen Erakundea bertan dago] eta historikoki, Kataluniatik jendea hona etorri izan da erbestera. Suitzara, eta batez ere Genevara. Herrialde honetan mundu osoko milaka eta milaka errefuxiatu daude, Suitzak errespetatzen baitu errefuxiatuen babeserako eskubidea. Esaterako, Espainiako botere judizia-

lak informazioa eskatu izan dio Suitzako Gobernuari [berriki, Marta Rovira non bizi den esateko eskatu zion], baina beti ukatu dio. Argi ikusten da Suitzak ulertzen duela auzi politiko bat dela gurea, Kataluniakoa, eta horregatik ez du kolaboratzen Espainiarekin.

Hainbat entitate eta erakunderen babes ez ezik, badaukazue babes komunitarioa, solidarioa, Kataluniatik oro har. Asteburu honetan ikusi dugu lagunak etorri zaizkizuela bisitan.

Rodríguez: Elkartasun sare sendoa antolatuta da guri babes adierazteko, eta horren osagarri zaigu Suitzan jasotzen ari garena. Ezkerreko antolakunde batzuk badaude Genevan, baita espazio antifaxista ere, eta jende askok enpatia sentitzen du Katalunian gertatzen ari denarekin. Bi karpeta daude, hala ere: Suitzako jende askok, akaso, ez luke bat egingo Kataluniako independentzia prozesuarekin, baina argi ikusten dute neurrigabeko jokabidea duela Espainiako Estatuak. Manifestatu, manifestazioak



**RUBEN
WAGENSBERG**

Bartzelona, 1986. ERCko diputatu independentea, 2018tik Kataluniako parlamentuan. Legebiltzarreko mahaiko kidea. Gai sozialetan aktibista, bereziki migrazio arloan, errefuxiatuen kasuan eta abar.

Erbestean darama urte erdi inguru. Espainiako Auzitegi Gorenak terrorismo delitua leporatzen dio, baita giza eskubideen urraketa ere, Tsunami Democratic-en parte hartu eta, zuzenki, ustez Bartzelonako Aireportuko mobilizazioak antolatu zituelako. Gertakari horietan turista frantziar bat zendu zen bihotze-koak jota.



**JESÚS
RODRÍGUEZ**

Santa Coloma de Gramenet, 1974. Kazetaria da Herrialde Katalanetako *Directa* astekarian. Hedabide kooperatiboa da, Bartzelonako Sants auzoan egoitza duena. Ikerketa kazetaritzan luze eta zabal aritua; besteak beste, polizia gehiegikeria eta infiltrazio kasuak ezagutarazi ditu.

Erbestean da joan den azarotik. Espainiako Auzitegi Nazionalak terrorismo delitua egotzen dio, zenbait errepede-mozketa ekintzen berri hilabete inguru lehenagotik zuelako. Beste 25 kazetari ere ikerketapean zeuden, antzerako informazioa maneiatu zutelako. Baina Rodríguezek informazioa pertsona bati bidali zion, eta pertsona horrek Carles Puigdemonti. Loturak elkartu ditu.

antolatu edo dena delakoagatik terrorismoa leporatzen zaigula ez dute ametzten. Espainiako botere judizialaren portaerak alarma asko piztu ditu hemen, eta Europako beste hainbat lekutan ere bai.

Eta auzi berean zaudetenon artean, eratu duzue sarerik?

Wagensberg: Gutako asko ez ginen aurrez ezagutzen, baina orain egoera berdintsuan bizi garenez, harreman pertsonalak egin ditugu. Nahiz eta espazio politiko oso ezberdinetatik gatozen bakoitza, eta parlamentuetan elkarren artean asko eztabaidatzen badute ere, gure artean, maila pertsonalean, iritzi ezberdina eduki arren, oso ondo eramaten ari gara. Gure larruan jartzea oso zaila da horrelako egoerarik bizi ez duenarentzat.

Ruben, zu Auzitegi Gorenak epaitzen zaitu, eta zu Jesús, Auzitegi Nazionalak. Auzi bera izanagatik ere, bi auzitegi dira. Zertan bereizten da?

Wagensberg: [Carles] Puigdemont eta bion kasua Gorenak darama, europar-

“ ”

Gure kasua, besteen aldean, oso-oso mediatikoa izan da hasieratik. Hainbeste filtrazio eta informazio egon direnez, kalibratu ahal izan dugu gure egoera

lamentarioa delako bera eta ni Kataluniako Parlamentuko aforatua. Gorenak, dena den, Auzitegi Nazionalako epailearen argumentuak erosi ditu oso-osorik. Egia da berme gehiagorekin jokatzeko ari dela, momentuz. Suitzatik deklaratzeko aukera eman digu, ekainaren 17tik 21ra bitartean, eta boluntarioki. Auzitegi Nazionalak, aldiz, Espainiako Estatura joatera behartu ditu. Badago aldea, baina hala ere, iruditzen zait, bi prozesuen ibilbideak leku berean amaituko direla.

Rodríguez: Auzitegi Nazionalak lehen deklarazio zitaziora ez ginen joan, bat izan ezik [Marta Molina, ERCkoa; bi minutuko deklarazioa izan zen], eta orain ikusteko dago ea Manuel García-Castellón epaileak bigarren zita bat ematen digun, eta ea erbestetik deklaratu dezakegun. Aukera planteatzen badu ere, ikusteke dago ea Suitzako Bulego Federalak onartzen duen eskaera; egin zen behin, eta ukatu. Edo baliteke atxilotze-agindua ematea, ez dakigu. Intuzioa dugu García-Castellónek ahaleginak egingo dituela gu Espainiako lurraldera itzularazteko, eta Guardia Zibilaren eta eskuin muturraren akusazioek kaute-lazko neurriak eskatuko balituzte, gure atxilotzea aginduko du.

Akusazioek presio egin diezaiokete epaileari?

Rodríguez: PPrent interes arabera mugitzen da, historikoki, Auzitegi Gorenara...

Wagensberg: "Onenean" jarrita, nire kasuan, Gorenako fiskaltzak terrorismo



ARGIAk bideoz ere grabatu du elkarrizketa: argia.eus-en duzue ikusgai, euskarazko azpidatziekin.

delituak baztertu balitu, Kataluniako Justizia Auzitegian epaituko nindukete. Baina ezinezkotzat ikusten dugu. Beharrezkoa dute guri terrorismoa eta giza eskubideen urraketa leporatzea, Amnistia Legetik baztertu gaitzaten. Ezin dugu pentsatu auzi juridiko justua edukiko dugunik, eta ezin dugu ezer egin tipologia aldatzeko.

Rodríguez: Kezkagarria da gertatzen ari dena, eta kezkagarria da Tsunami auzia epaiketara iriste hutsa. Zilegitasuna ematea da, eta aurrekaria eta jurisprudentzia ezartzea, manifestazio bat egiteagatik terrorismo delitua egozteari. García-Castellón epaileak esaten duena oinarrian hartzen badugu, Gorenak ere onartu duen diskurtsoa hain justu, zergatik ez zaie etorkizunean terrorismo delitua leporatuko errepideak mozten dituzten laborariei, Madril eta Bartzelonako erdiguneak kolapsatzen dituzten taxi gidariei, edozer gauza eskatzeko edo protestatzeko kalera irteten den edonori...

... terrorismoaren mamua.

Wagensberg: Akusazioa oso abstraktua eta subjektiboa da. 2015ean egin zuten erreforma [Espainiako Zigor Kodean], eta ordutik, epaileek askatasun gehiago daukate interpretaziorako. Terrorismo delitua, bere horretan, ez da existitzen. Erailketa bat, demagun, homizidioa edo terrorismoa izango da, epaileak delituegilearen asmo politikoak modu batera edo bestera interpretatzen baditu. Zer gertatzen da? Nahieran interpretatuta, bene-benetako terrorismoa ezerezten dela.

Estatu Islamikoaren biktime diren pertsonekin egon gara, eta babesera erakutsi digute, baita Siria edo Irakeko gerrako biktimek ere. Haietako askok adierazi digute ez dutela egoki ikusten

“ ”

Kezkagarria da Tsunami auzia epaitegietara iriste hutsa. Zilegitasuna ematea da, eta aurrekaria eta jurisprudentzia ezartzea, manifestazio bat egiteagatik terrorismo delitua egozteko mekanismoari

guri gertatzen ari zaiguna. Ados daude gurekin, Espainiako botere judiziala, guri “terroristak” deituta, benetako terrorismoa ezerezten ari da.

Rodríguez: [Espainiako] Zigor Kodeak dio ordena konstituzionala asaldatzen duen ekintza oro dela terrorismoa, ekintza horrek estatuaren esku hartzea behartzen baldin badu bere borondatearen kontra. “Ordena konstituzionala asaldatu”. Hiru hitz baino ez dira, baina horrek ahalbidetzen die epaileei terro-

rismo delitua leporatzea espazio publikoetarako sarbidea mozten duen orori, hau da, autobide, portu edo aireportu baterako bidea blokatzen duenari. Hori protesta eskubidearen aurka doa. Edozein manifestaziok lortu nahi du aldarrikatzen ari dena, estatua behartu egiten ari ez den hori bera egitera, eta horretarako errepideak moztuko ditu. Beldurra zabaltzeko asmoa bistakoa da.

Wagensberg: Frantzia ikusi berri ditugu laborarien protesta ikaragarri





Tsunami Democratic 2019ko udazkenean sortu zen, Kataluniako buruzagi independentistei ezarritako zigor gogorraren testuinguruan, bi urte lehenago erreferenduma antolatu, egin eta independentzia aldarrikatzeagatik. Irudietan, hainbat ekintza esanguratsuetako argazkiak.

handiak, Tsunami baino jende gehiago bildu zituztenak segur aski. Horiek ez dute deliturik egin, ez Frantziako botere judizialaren irudiko, gehienez ere isuna jasoko zuten, edo hori ere ez. Guri terrorismoa leporatzen digute.

Hamabi pertsonari egozten dizuete. Zergatik zuek?

Wagensberg: Telefonoak arakatu zizkigutelako software israeldar batzuekin eta mezu batzuk topatu zituztelako guri ardura egotzi ahal izateko. Baina ez dago ezer ere frogatuta. Manifestazioetarako antolatu ginela, elkartu, luze eta zabal eztabaidatu genuela... Beste hamarnaka mila pertsonak ere ziur, egun horietan, antzerako mezuak bidali zituztela. Niri atzeman zizkidaten elkarrizketetan esaten nuen, nire ustean, Espainiako Estatuarekin elkarrizketa abiatzea zitekeela helburua, baina era berean protesta ere

“ ”

Terrorismoaren delitua nahieran interpretatuta, bene-benetako terrorismoa ezerezten da

egin behar genuela munduari kontatzeko gertatzen ari zena. *Spain sit and talk* (Espainia, eseri eta hitz egin) leloa hortik atera zen, desobedientzia zibilaz sakon teorizatuta... Jende askok edukiko zituen halako mezu trukaketak egun horietan.

Aplikazio ustez seguruetan eta anonimotasunean egiten saiatu zela mundu guztia? Hori horrela da, aurrekariak baitituzte Espainiako Estatuan, haute-

tsontziak ipintzeagatik karguak izan baitituzte makina batek. Horregatik, ordea, Tsunami ez zen izan “antolakunde kriminala”. Sumarioa ikusteko aukera duenak ziurtatuko du gure aurkako frogak oso ahulak direla. Hamabion artean komunikatzen ginela ere ez dago frogatuta; areago, ez ginen elkar ezagutzen.

Rodríguez: Tsunami auziaren azterketa sakonagoa egiten badugu, argi ikusten da epailearen autoak eta ondorioak aurrez pentsatuta zeudela. 300 pertsonaren elkarrizketak miatu dituzte, horietatik 26 kazetariak gara, eta 240.000 orri ditu sumarioak. Milaka mezu atzeman zituzten, audioak, CDak, konfiskatutako mugikorrak eta ordenagailuak, programa espiatzaileetan jasotako dena... Hori guztia forentseen programa berezi batzuetatik pasatu dute, analizatzeko. Niretzat gakoak hauxe da: Carles Puigde-



Elkarrizketako hainbat fotograma.

montek eta Marta Rovirak kasuan egon behar zuten. Puigdemonten gertuko pertsona batekin hitz egin nuen nik, presidente erbesteratuaren izena agertzen zen, eta beraz, ni ere barrura noa.

Beharrezkoa da auziaren bialdi bereiztea: 2023ko apirila eta azaroa. Apirilean, *El Mundo* egunkariak publiko egindako informazio baten arabera, hainbat pertsona ikerketapean geunden. Espainiako Barne Ministerioarekin jarri nintzen harremanetan, nire abokatuaren bidez, eta han esan zidaten ez nintzela ari ikertua izaten, une horretan auzian ez zegoela Puigdemont aipatzen nuen mezurik, eta lasai egon nintekeela, kazetaritza informazio bat baino ez zela. Horixe transmititu zidaten. Espainiako Gorteetarako hauteskunderen ostean hasten da auziaren bigarren aldia, hain justu ere PSOEk eta Pedro Sánchezek alderdi independentisten babesa ezinbesteko zutenean gobernu osatzeko. Amnistia Legea negoziatzen ari zirenean, eztabaida mediatikoa puri-purian zegoenean... Orduantxe aurkitu zuten aipaturiko mezua. Zergatik une horretan? Gidoia aurrez idatzita zegoelako. Eta gidoia zera da, ez Puigdemont eta ez Rovira ezin direla Amnistia Legean sartu. Beharrezko mezuak aurkitu dituzte une erabakigarrian, eta Amnistia Legearen testuak fintzen joan ahala, terrorismo delituarena are gehiago indartu du García-Castellón epaileak.

Wagensberg: Aktore berriak ere azaldu dira. Terrorismoaren biktimak direla dioten bi polizia agente, esaterako. Eta

aireportuko mobilizazioetan bihotzkoak jota, zoritxarrez, zendu zen turista frantziarra.

Rodríguez: Aktiboki hartu du parte epaileak, berak bilatu baititu figura berriak. Guardia Zibilari propio eskatu zion turista frantziar horren familia identifikatu, beraiengana joan eta "aukera eskaintzeko" terrorismoaren biktimatzat jotzeko euren burua. Hori guztia pasatu zen uztailako hauteskunderen ondoren, Amnistia Legearen negoziaketa betean. Harrigarria batzuentzat, aurreikusgarria besteentzat.

Espainiak ez du barkatzen...

[Barre egin dute]

Wagensberg: Baina beti berdin jokatzen du. Botere judizialak ahal dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu politika egiteko. Irnatasun handiz ari da, hain justu ere inolako barkamenik eman ez diezaguten, ezta txikiena ere.

Rodríguez: Esaten ari dira ez dutela inoiz barkatuko, eta politikoki, botere judizialak beti hartuko diola gain botere legegileari. Alegia, berdin diola jendeak zer bozkatzeko duen. Boterearen boterea judiziala da Espainian, eta nagusiki PPren bueltan mugitzen da; gaur egun baita Vox-en inguruan ere. Soinubakarrekoa da botere judizial eta mediatikoa. Ignacio Cosidó PPko senataria argazkilaria batek harrapatu zuen Whatsappep norbaiti zera esaten: "Goreneko zigor aretoa atzetik kontrolatzen dugu".



Orain, bai, gure larrutan bizi dugu: atzetik kontrolatzen dute.

[Barre egin dute]

Lotsagarria da, eta ozen esan behar da: munduko beste edozein demokraziatan horrek guztiak ekarriko luke dimisio-kate izugarri bat, zigor aretotik hasi eta politikarienganaino. Baina Espainian ez da ezer ere gertatzen, eta hori seinatzen duenak, gainera, kontuz ibili behar du.

Hain justu ere, Jesús, poliziaren gehiegikeria eta infiltrazio kasu mordoak ikertu dituzu Directa-n. Gaizki pentsatzea izango ote da: gogoia ote zizuten...

Rodríguez: Gertatzen ari zaidanak berresten du ikerketa kazetaritzaren garrantzia. Helburu politikoa epaileek ezartzen dute, eta edozer egiteko gai dira. Tsunamirekin hori ikusten ari gara, eta nire kasuan, bazekiten nire lana deserosoa dela haientzat. Kolpe bakarrean, orain, biak akabatu nahi dituzte.

Amnistia Legea onartu bezperatan ari gara elkarrizketan. Zer espero behar dugu? Ondorenak zer ekarriko du zuentzat?

Rodríguez: Ehunka kasu ebatziko ditu Amnistia Legeak, baina gu kanpoan gertatuko gara. Lehen unetik García-Castellónen aktore gonbidatuak sartuko dira jokoan: Vox, Dignidad y Justicia, Societat Civil Catalana, Guardia Zibila... Alegazio bidez ahaleginduko dira prozesua murreraino eraman eta dena mantsotzen.



Wagensberg: Konfiantza daukagu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarengan. Horko balizko ebazpen batek behartu dezake Espainiako botere judiziala guri ere amnistia aplikatzera. Horrela denean, horrela bada, ospatuko dugu. Baina era moderatu batean. Kontziente gara garaipen politiko bat izango dela, baina ez dira hor amaitzen asmo independentistak.

Rodríguez: Hiru bide irekiko dira orain, behin Amnistia Legea onartu, erregeak sinatu eta Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean. Bata, Amnistia Legea zuzenean guri ere aplikatzea, eta eskatuko dugu horrela izatea, baina ez digute onartuko. Eta beste bi bideak Europara begira jartzen dira: edo epaileek beraiek joko dute hara, kontsulta egitera; edo geu joango gara behin Espainiako botere judizialaren ezezko biribila jasotzean. Ikusi beharko da, auzia Europar dagoenean, atxilotzeko-eta kautelazko neurriekin zer gertatzen den. Eta akusazioek, espero da, Konstituzionalera bideratuko dutela auzia; hor ere ea zenbat luzatzeko gai diren. Etortzen dena etortzen dela, Europatik gure alde badator, ez da gauza bera ebazpen hori jasotzerakoan Espainiako Gobernuan PSOE-Sumar egon ala PP-Vox... Edo Sánchezen gobernu eroriko balitz, Konstituzionalako ordezkari aldaketa ere aldatuko litzateke segur asko... Eragina izango duten faktore asko daude. Ezin da aurreikuspenik egin.

Puigdemonten gainean daude fokuak. Auzi berean zaudete, baina egoera ez da berdina izango: Puigdemont, Puigdemont da.

Wagensberg: Ehiza-sari handia bera da, baita Rovira ere. Baina denok gara kontziente, eta gure artean hitz egitean ere termino hauetan ari gara: auzi kolektibo bat da.

Rodríguez: Orain ari naiz kontziente izaten zer den sei-zazpi urte erbestean pasatzea. Oso jende gutxi daki zer den hori. Toni Comín, Anna Gabriel, Carles Puigdemont, Marta Rovira... Enpatia sentitzen dugu.

Aste eta hilabete gogorrak izango dira datozenak. Animo aldetik, nola zaudete?

Wagensberg: Kuriosoa da gizakia nola egokitzen den egoeretara... Etorri ginenen bano hobeto gaude, eta etorri behar duenari aurre egiteko prest.

Rodríguez: Errusiar mendia da emozionalki. Deskonektatzea oso zaila da, are gutxiago hain mundu interkonektatuan, baina iristen zaizkigun informazio guztiak geroz eta distantzia eta hoztasun gehiagorekin jasotzen ditugu. Norbere bizipenak partekatu eta kolektibizatzeo aukera izaten ari gara eta ederra da hori.

Wagensberg: Auzitegi Nazionalako edo Gorenako norbait irakurtzen ari bada elkarrizketa hau, jakin dezatela ez direla kontziente zenbat eta zenbat en-

titate, elkarte eta instituzioetako pertsonak entzun ahal izan gaituzten eta zenbat zabaltzen ari garen gaia. Zigor handia ipini digute, eta horrela da, ez dut ukatuko, etxera itzuli nahiko genuke, baina txarrenari onena ateratzen ari gara. ●



mitxelena *Koop*
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak



Ezizago industrialdea 21, MERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

“Fibromialgiaren okerrena da ingurukoek ez sinistea”

Batzuentzat ikusezina eta sinesgaitza bada ere, fibromialgia existitzen da, eta berrehun sintoma baino gehiago daude gaitzari lotuta. Horietako batzuk jasaten ditu Edurne Iribarrenek (Otsagabia, Nafarroa, 1954) eta nabarmendu du eragin “handia” dutela egunerokoan: “Agian energiaz esnatzen naiz, eta zerbait egiteko gogoz, baina berehala nekatuta nago”. Horren ondorioz, bazterkeria jasan du lanean.

 OLAIA L. GARAIALDE



Edurne Iribarren

Min eta neke handia. Horiek dira fibromialgiak eragin ditzakeen sintometako batzuk. Biak sentitzen ditu bereziki Edurne Iribarrenek: “Gaur egun ez dakit zer den adinaren ondorio, zer fibromialgiarengatik, parkinsonarengatik edo beste gauzen-gatik”. Berrogei urterekin artritis erreumatoidea diagnostikatu zioten. Gaitz kronikoa da, eta giltzaduretan mina, hantura eta zurruntasuna eragiten ditu: “Izugarrizko minez egon nintzen, baina zorionez, urte eta erdi oso gaizki egon ondoren, ez dut agerraldi gehiagorik izan”. Horren ostean, hondarrezko fibromialgia zuela esan zioten: “Ordutik ez dut osasun onik izan”.

Nekeak eragin handia du bere egunerokoan, eta hori dela-eta ezin ditu egin “oso gustuko” dituen gauzak; adibidez, mendira joan. Lagunekin egoteko zailtasunez gain, lan egitea ere “oso gogorra”

da. Dagoeneko erretiroa hartu badu ere, urte luzez Iruñeko Iturrama institutuko irakaslea izan da: “Baja asko hartzen nituen ez nengoelako ongi, baina jendeak, ez gaituenez gaizki ikusten, ez du ulertzen. Fibromialgiaren okerrena da ingurukoek ez sinistea”.

Horren ondorioz, lanean “ospea galdu” eta bazterkeria pairatu du: “Baja hartzen duzunean ordezkoa jarri arte egun batzuk pasatzen dira, orduan beste irakasleek lan gehiago hartzen dute. Oso mespretxatuta eta baztertuta sentitu naiz lankide batzuen partetik”. Gurasoak ere kontra jarri zitzaizkion: “Ni kaleratzea proposatu zioten zuzendaritzari”. Baina ez zuten lortu.


BAZTERKETA MEDIKUA

Fibromialgia pairatzen duten batzuek lanerako ezintasun iraunkorra eskatu behar izaten dute ezinezkoa egiten zaialako lanean jarraitzea. Askok salatzen du

“Depresiora eraman zaitzake, jendeak ez zaituelako ulertzen, oso gaizki zaudelako eta zure gorputza ezinean ikustea oso gogorra delako”

traba handiak izaten dituztela eta prozesua oso gogorra dela. “Argi nuen bide horretatik ez nuela deus lortuko. Medikuek askok ez gaituzte sinesten eta mespretxuz tratatzen gaituzte. Ea behingoz iker-tzen duten”, esan du.

Oztopoak oztopo, Iribarrenek ez zuen lana utzi nahi: “Askok gustatzen zitzaizdan, eta nahiz eta orain desberdin ikusi, orduan tragedia bat iruditzen zitzaidan lana uztea”. Hala ere, ezinezkoa egiten zitzaion irakasle izatea, “lan handia” zelako klasea kudeatzea, ikasleen arreta



mantentzea, klasetik kanpoko orduak eta beste: "Jendeak ez daki zein gogorra den hogeita hamar ikasle izatea".

Hortaz, hezkuntzan ez-ohikoa den arren, lanpostuz aldatu zuen institutuko medikuak, eta liburutegian lan egiten hasi zen: "Zorte handia izan nuen". Bertako lan erritmoa lasaiagoa zen, eta gaizki zegoen egunetan askatasun handiagoa zuen: "Nahiko ahaztuta zeukaten liburutegia; orduan, ez nuen inor atzetik presioa sartzen. Egun txar bat nuenean lasai-lasai irakurtzen egon nintekeen". Horrekin batera, klasetik kanporatzen zituzten ikasleak liburutegira bidaltzen hasi ziren, eta egunero hamar lagun inguru elkartzen ziren: "Ikasleak orokorrean oso jatorrak dira, baina klasean aspertu egiten dira. Liburutegian oso ongi egoten ziren, eta hautsa kentzen eta

liburuak antolatzen laguntzen zidaten". Hirurogei urterekin erretiroa hartu arte liburutegian lan egin du.


EMOZIOAK ETA GAIXOTASUNAK

Ikusezina izateak, ez ulertua sentitzeak, bazterkeriak eta bestek osasunean ondorio larriak eragin ditzaketela uste du Iribarrenek: "Depresiora eraman zaitzake, jendeak ez zaituelako ulertzen, oso gaizki zaudelako eta zure gorputza ezinean ikustea oso gogorra delako. Ez dakit nola azaldu, baina bat-batean uzten diozu lehen zinen modukoa izateari".

Gaineratu du gaixotasunek emozioekin "lotura zuzena" dutela: "Gauza asko ditut eta uste dut dela oso sentsiblea naizelako. Txikitari asko sufritu dut, batzuetan arrazoirik gabe, naizen bezalakoa naizelako". ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Burua, bertan gertatzen direlako gauza guztiak. Oso desberdina da baikorra edo ezkorra izatea, pentsamenduek eragin handia dute gure bizitzan. Oso baikorra eta lasaia den gizon batekin bizi naiz, eta ikusten dut nola bizi den. Ni aldiz, kontrakoa naiz, beti kezkatuta eta gauza txarretan pentsatzen. Esfortzu eta lanketa handia egiten dut, eta hobetu eta ikasi dudari arren, nire joera hori da".



(HAZIEN) UGALKETA PROZESUAK KOLEKTIBOAK DIRA



MARTA BARBA GASSÓ

Azken asteotan hazitegian ibili gara udarako barazkien haziak ereiten eta landaretxoak sortzen. Zenbait landare dagoeneko baratzean daude. Lozorroan zeuden haziei baldintza egokiak eskaini dizkiegu esnatu zitezen; edo, beste era batera esanda, jaio zitezten. Eta jaio dira, eta badoaz pixkanaka aurrera.

Azken artikuluan, haziek erakusten digutenari so, kolokan jarri nuen "ugalketa/ekoizpena" dikotomia, eta hari beretik tiraka jarraitu nahi nuke oraingoan ere. Noiz gertatzen da, zehazki, landare eta hazien ugalketa? Eta jaiotza? Baratzeo aurreko denboraldian polinizatuak izan ziren loreetatik etorri ziren haziak. Orduan gertatu zen, nolabait esanda, "ernalketa". Haziok, beraien baitan (eta guk propio sortutako biltegi fresko samar batean) gordeta egon ostean, orain eman diete bide landare berriei. Guk lagunduta.

Charis Thompsoni irakurri nion behin "ugalketa-koreografiak" kontzeptua, zeinak ugalketari bestela begiratzera eramanez ninduen. Ordurako nahiko ondo ikasia nuen DBHko biologiarene mezu nagusia: ugalketa, gehie-



netan, "sexuala" da, eta espezie bereko bi kideren material genetikorene nahasketaren ondorioa da, normalean "sexu ezberdinetako" bi kideena. Azkar eta gaizki azalduta, hau zen niretzat ugalketaren funtsa. Baina, Thompsonen ideiak lagundu zidan ikusten ugalketa prozesu biologiko-genetikoetatik harago doala, eta horretan, maiz, espezie ezberdinetako hainbat eta hainbat kidek parte hartzen dutela. Horren erakusle dira hainbat kulturatan giza-ugalketa antolatzeo eta ulertzeo sortu diren hamaika modu. Baita nekazaritzan eta hazien ugalketan gertatzen dena ere. Barazkien kasuan, non gertatzen da, zehazki, "ugalketa"? Kokatu dezakegu ugalketa soilik espezie bereko bi norbanakoen material genetikorene nahasketa gertatzen den une horretan? Nire iritziz, ugalketa ezin da ez ulertu, ez azaldu, gizaki eta bestelako zenbait izakiren eskuhartzea kontuan hartu gabe. Beraz, biologiak emandako azalpen nagusia hankamotz geratzen zaigu. Are, esango nuke azalpen horrek, besteak beste, diskurtso heteronormatibo eta antropozentrikoa indartzeko funtzioa izan duela eta

baduela. Izan ere, alde batetik, nagusiki ar eta eme baten beharrene kokatu du ugalketa; bestetik, espeziearene barruan kokatu du, gizakiok egindako espezieen arabereko sailkapena (zeinetan gizakiak balizko klasifikazio hierarkiorene goialdean agertzen garen) finkatuta. Baina errealitatea guztiz bestelakoa eta konplexuagoa da.

Baratzean biltzen ditugun hazien jaiotzan edo esnatzean izaki askok eragiten du. Beraz, baratzean ikusten, sortzen eta elikatzen ditugun ugalketa-prozesuak koreografietatik gehiago dute, bi pertsonen arteko ekintzatik baino. Koreografia horietan, baina, denek ez dugu eragiteko gaitasun bera; denek ez diogu elkarri modu berean eragiten. Hortaz, koreografiarene ideia horrek ugalketari lotutako azalpen heteronormatibo eta antropozentrikoak deszentratzen laguntzeaz gain, ugalketaren harreman plural horiek egituratzen dituzten botere-harremanak bistartzeko ere balio diezaguke. Ugalketa ez baita "naturan", berez, gertatzen den zerbait; izaki askoren eragina eta borondatearene ondorioa da. Maiz, borrokatua. ●

A ZE FAUNA!

ITSAS HONDOAN JAIOA,
ARRANTZAN IAIOA

ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Aspaldi arrantzaleek gutxi estimatutakoa bazen ere, egun platerean itsasoan baino dezente hobe eza gutzen da. Haragi trinkoa du, bereziki isatsean. Buruak gorputzaren tamainaren erdia hartzen du luzeran, eta zabala eta zapala da –ezaguna egingo zaizu, arraina zuk erosi eta ondoren zoparako erabili izan baduzu bederen–. Gertutik begiratuta beldurtzeko moduko begirada du; gurea, ordea, bere ezpain azpitik atzematen zaion letagin zorrotzen ilarara zuzenduko da halabeharrez. Izan ere, itsas hondoetako krustazeo eta arrainak jaten ditu, eta horiek harrapatu, txikitu eta irensteko moldatutako aho handia du. Hain da handia, ezen aukera duenean bere gorputzaren tamainaren adinako harrapakinak arrantzatzen baititu. Arrantzatu, bai. Zapoak honetarako kainabera eta amua kopetan itsatsiak daramatza. “Ilizio” deitutako organo hori begi tartetik gorantz luzatzen da, eta muturrean argia igortzeko gaitasuna duten bakterioz betetako poltsatxoak ditu. Adartxoak gora eta behera mugituta, amu dirdiratsuak igerian dabilen mauka goxoaren itxura hartzen du, zapoaren aho parera gerturatuko diren harrapakinentzat. Arrantza-modu hori bereziki eraginkorra da ur sakonetako iluntasunean, zapoak hainbat metroko sakoneratetik (50–300 m) 2.500 metroko itsas hondo abisalera banatzen direla kontuan hartuta.

Munduan 200 zapo espezie daude. Gehienak sakonera handitako iluntasunean bizi dira eta beraz, oso ezezagunak. Arrandegietara iristen zaizkigunak, ordea, bi dira: zapo zuria (*Lophius piscatorius*) eta zapo beltza (*L. budegassa*).



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

Bigarrena, haragi ilunagoarekin –azala ere bai, baina ez hainbeste–, askoren us-tetan jateko hobe da; baina ez da hain ugaria eta beraz, garestiago ordaindu ohi da. Biek ala biek, normalean 30-50 cm inguru neurtu ohi dute. Hala ere, lehenago arrantzatzen ez baditugu, 20 urte izatera iritsi daitezke eta metrotik gorako zapo zuriak topatu izan dira: azkenak 63 kilokoak, Bermeon.

Zapo zuri eme batek udaberrian erruten duenero, bere gorputzeko kilo bakoitzeko 80 mila arrautza errun ditzake. Horietatik oso gutxi biziraungo badute ere, lehen 100 egunetan itsaso zabalean (eremu pelagikoan) igerian aritu ondoren, itsas hondora hurbildu eta honen gainean igaroko dute bizi osoa. Horrela, gaztaroko igeriketa-abilezia ahaztuko balute bezala, zapo zuri eta beltz helduak nahiko baldarrak izango dira. Itsas-hon-

ZAPO ZURIA

Lophius piscatorius

TALDEA: Ornoduna/Arraina.

NEURRIA: 20-30 cm (handienek > m1).

NON BIZI DA? Ozeano Atlantikoko ekialdean eta Mediterraneoan, itsas hondoan, sakonera handitan (50-300 m).

ZER JATEN DU? Itsas-hondotako krustazeoak eta arrainak.

BABES MAILA: Ez dago babestua.

doarekin mimetizatu eta ia-iku-sezin bilakatzeko, ordea, abilezia aparta garatuko dute.

Zapo emeak aipatu ditugu bereziki, izan ere, emeak soilik dira gure plateretara iristen zaizkigunak. Nola liteke? Zapo arrak emeak baino hamar bat aldiz txikiagoak izaten dira. Emea topatzen dutenean, sexuan beste ezertan pentsatzen jarri, eta burua galtzen dute. Arrak emearen sabelean koxk egin, eta itsatsita gertatuko da, emearen elikagaiak xurgatzen. Une batean emearen gorputzarekin nahiz haren odol-fluxuarekin bat egingo du. Hortik aurrera, arrak begiak eta barne-organo guztiak galduko ditu; guztiak, barrabilak ez beste. Eme bakar batek sei ar itsatsi ere izan ditzake uneren batean, eta berak erabakiko du noiz errun, jada ernalduta askatuko dituen arrautzak. Beraz, ez izan zalantzarik, orain arte jan dituzun zapo denak emeak izan dira.

Egin atzera denboran, dinosauroak desagertu ziren garaira arte. Egin beste hainbeste atzera. Garai hartan ere, zapoak itsasoan zeuden. Eta badu haragiaren zaporeaz gain bestelako interesik ere; haren pankreatik erauzi zen lehen aldiz intsulina. Dinosauro bizia da. Gurean ordea, urte eta gutxira hartzen duten ano bakarreko tamainako aleak arrantzatzen dira, milaka. Zergatik? Erosten ditugulako. Platerean hobeto geratzen delako isats osoa. ●

LANDAREEN PATXADA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kokaina, morfina, nikotina, kafeina, kinina, atropina, koltxizina edo estriknina entzuten baduzu, zer datorkizu kaskezurrera? Papaberina, bruzina, efedrina, teobromina edo latirina ere izan daitezke. Zer bururaten zaizu hitz horiek aditzean? Alkaloideak dira, denak landareen batetik eratorriak.

Landareek nahitaez hiru ezaugarri dituzte, hirurak animaliongandik bereizgarri. Aurrekoa: bizi diren artean hazi egin behar dute. Egun gutxi batzuk edo milaka urte bizi, bizirik den artean hazi egin behar du, horrela osatzen baititu oinarritzko duen izerdiaren gora eta beheko zikloak. Zuhaitz gehienetan nabarmena da urteroko hazkunde enborrean osatzen duen azalpeko eraztun berrian.

Tartekoa: bere mantenua beraiek sortzen dute. Onddo eta bestelako laguntzaile batzuekin tratuak egiten dituzte, eta horrela bizitzeko nahitaezko dituzten jakiak eta ura eskuratu, fotosintesian argiaren indarrarekin eraldatu eta elikagaiak bere kasa sortzen dituzte. Animalioak irauteko eta bizitzeko beste bizidunak jan beste aukerarik ez dugu; batzuek hil edo akabatu egin behar gainera, jango badugu.

Atzekoa: landareak ez dira mugitzen. Geuk mugitzen ditugu: erein, zeharraldatu, aldatu, landatu, birlandatu, aldaxkatu, altsumatu, muskildu, aldakaiztu, belaunkatu, probenatu, txertatu... Berez, orde, fruituaren haziak egiten duen ernatu aurreko bidaia, itsatsi eta lur berrian landare berria sortzen duen artekoa, izango da bere mugimendu bakarra. Guk mugituko dugu, beste animalia baten batek jango du eta kaketan bota, nahi gabe soinean kateatuta eramango dugu, haizeekin hegaldatuko da, uretan nabigatuko du. Landare gehienak sortu diren tokian bertan biziko dira, hil arte bizi.



Kakaoak teobromina sortzen du eta dosi ez oso altuan txakur eta katuetan bihotzekoak eragin ditzake.

Hil arteko horrek ematen ditu lanak. Geldirik bizi behar horrek berebiziko buruhausteak sortzen dizkie landareei. Milioika eta milioika urte daramatzate landareek lur honetan eta oraindik usaindu ere ez ditugun beste hainbeste trikimailu garatu dituzte bizirik irauteko. Horietako mordoxka bat animaliak bere onerako nola erabili da, esaterako polinizatorako eta aipatutako haziak garraiatu eta zabaltzeko. Beste martingala mordo bat animaliak arrastoan sartzea da: animalioak bizitzeko jan edo hil egin behar dugun horretan, edo zer ahoratzen dugu. Eta landareek bere burua babestu egin behar, gainontzean jan egingo ditugu. Babes horiek eraikitzen iaioak dira, landareari kosk egitea zailtzeko arantzak janztea bezala: jan eta berehala damua sorraraziko diguten osagai kimikoak dituzte. Hasieran aipatutako alkaloidak adierazle. Horiek gorputza eta gogoa

astintzen dizkigute. Landare horiek ez jan, ez ukitu, kontuz horiekin. Hori da oinordetzan jaso duguna, genetikan daramagun ondoretasuna balitz bezala: landareekiko beldurra. Ez da gutxiagorako.

Adigarri txokolatearen teobromina. ELIKAK 2009an argitaratu zuenez (*Animalien elikaduran nahi ez diren gaiak, teobromina*), dosi ez oso altuan txakur eta katuetan bihotzeko aritmiak eta dardarizoak eragin ditzake, baita animalia bera hil ere; dosi hori animalia kiloko 80 miligramotik gora teobromina litzateke, 11 gramo txokolate beltza edo 37 gramo txokolate esneduna. Arratoietan atzera bueltarik gabeko barrabilen atrofia eragiten du dosi altuetan.

Bizkitartean landareak patxada ederean, kokaina, morfina, nikotina, kafeina, kinina, teobromina eta abar sortzen, badaezpada. ●

AGROEKOOP

ARABAKO GARI ZAHARRAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUA



GARAZI ZABALETA

Arabako Bionekazaritza elkar-
tearen eta Euskadiko Hazien
Sarearen arteko lankidetzatik
sortu zen duela urte pare bat
Agroekoop kolektiboa. “Arabako agro-
ekologiaren bueltako elkarrekin lotzeko
eta indartzeko, eta sinergiak sustatzeko
asmoz sortu genuen”, adierazi du Joseba
Ibargurengoitia Gascó kideak. Arabako
antzinako gari barietateak berreskuratze-
ko egitasmoa jarri du martxan elkarrekin,
“agroekologia sustatzeko eta nekazaritza-
ko ondare genetiko aberastasun kultural
eta ekonomiko gisa mantentzeko”.

BARIETATE KOMERTZIALEK BAZTERREAN UTZI DITUZTEN GARIAK

Gaur egun nekazaritza konbentzionalean
erabiltzen diren gari barietateak komer-
tzialak izaten dira, modernoak. “Azken
hamarkadetan, nekazarien kooperatiba-
tatik eta elkarrekin barietate komer-
tzialak bultzatu dira etengabe, eta dagoe-
neko hemengo lursailetan eta baserrietan
ez zeuden garai bateko bertako haziak”,



adierazi du proiektuko kideak. Haziak ez
ezik, horien gaineko ezagutza eta maneiua
ere desagertu dira, baina galera horri aurre
egiteko asmoz abiatu dute egitasmoa.
Agroekoopeko taldeen eta bazkideen lursail-
etan ari dira proiektua gauzatzeko.

“Lehenago ere egin izan ditugu saiakerak.
Hazien saretik, esaterako, duela hogei
bat urte hasi ginen bertako barietateak ber-
reskuratzeko, Madrildik ekarrita”. Izan ere,
Euskal Herriko barietate zahar gehienak
Madrilgo banku ofizialera eraman zituzten
1980ko hamarkadan, eta handik berres-
kuratzeko ari dira orain Arabakoak. “Azken
urteotan, Neikerren hazi horiek eskuratu
dituzte, eta guk handik lortu ditugu proiektu
honetarako barietateak”, dio Ibargurengoitia.
Sei barietate zahar dira, momentuz,
berreskuratzeko ari direnak: motxo gorria,
motxo bilotsua, Gasteiz goiztiarra, Bergara
goiztiarra eta Zanbranako irauliezina.

JARDUNALDIAK

Ibargurengoitiak nabarmendu duenez,
garrantzitsua da antzinako hazi barietateak
berreskuratzeko, bioaniztasunari eta

erresilientziari begira: “Zenbat eta landa-
tutako aniztasun handiagoa izan, orduan
eta aukera gehiago izanen ditugu izurrit-
teei, gaixotasunei, aldaketa klimatikoari
eta bestelakoei aurre egiteko”. Arabako
ekoizleen eta okinen artean interesa piz-
tu dute barietate zaharrek, zapora alde-
tik ere erakargarriak direlako: “Interesa
egon badago; kontua da, ea nola antola-
tuko garen, nola egituratu eta bideratuko
dugun ekoizpena sostengarria eta erren-
tagarria izateko”.

Egitasmoaren berri emateko bi jardun-
aldi ireki antolatu dituzte proiektuaren
bultzatzaileek: ekainaren 8an izango da
lehena, Salcedon, erreproduktzio-lursail-
tako batean. Bigarrena, abuztuaren 20an
izanen da, Barrian, hango beste lursailan.
“Nekazariarekin eta teknikariarekin ikerteta
parte-hartzailea ere egingen dugu, lehen-
go teknika eta jakituria berreskuratzeko
eta egungo ezagutzekin bateratzeko. Az-
ken batean, hori ere bada agroekologia:
antzinako ezagutzak eta gaurkoak bate-
ratzea, biodibertsitatean irabazteko eta
baserriaren lana errazteko”. ●

Nekazaritza ekologikoa, ingurumena hobetzeko!




Euskadiko Nekazaritza eta
Elkaidura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euzkadi

Babesleak:



Europar Batasunak
kofinantzatua





NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ikusten banauzu, egin negar

Elba ibaiaren arroa, 1417. Lehorteak eraginda ibaiaren mailak nabarmen egin zuen behera, eta norbaitek ur maila markatu zuen harri batean, idazkuna bat zizelkatuta: "Harri hau berriro ikusten baduzu, negar egingo duzu. Ura maila honetan zegoen 1417 urtean".

Hurrengo idazkuna 1616koa da: "Ikusten banauzu, egin negar". Harri horretan beste hainbat urte daude markatuta: 1707, 1746, 1790, 1800, 1811, 1830, 1842, 1868, 1892 eta 1893.

Ez da antzeko markak eta inskripzioak dauzkan harri bakarra. Elba ibaiaren arroan beste asko daude eta Rin, Mosel, Mündesee edo Weser ibaietan ere aurkitu dituzte halakoak. "Ikusi ninduenak negar egin zuen. Orain ikusten nauenak negar egingo du" dio horietako batek; "Bizitza berriro loratuko da harri hau desagertzen denean" beste batek.

Europa erdialdeko ibai horien ur maila baxuak lehortea adierazten zuen, uzta txarrak eta, beraz, urritasuna egungo Alemanian, Txekian, Eslovakian, Austrian eta Hungarian. Alemanian bada markatutako harri bat "Hungerjahr 1947" dioena ("Gose urtea 1947", alegia). Horregatik alemaneraz *hungersteine* esaten diete harri hauei, gosearen harriak. Bigarren Mundu Gerraren ostean, baldintzak berez gogorrek zirenean, 1947ko negu hotz eta lehorrak are gogorragoak egin zituen



PETR DAVID JOSEK

Europa erdialdeko ibaietako *Hungersteine* edo "gosearen harrietan" iraganeko lehorte urteak daude markatuta.

bizi baldintzak. Eta ez soilik uzta txarren eraginez: ur maila asko jaisteak edo urak izozteak eremu horietan hain garrantzitsua izan den ibaiaren nabigagarritasuna oztopatzen du eta, beraz, lehengaien garrarioa ere bai.

Hasieran aipatutako harria, 1417ko marka zaharrena duena, 2013an aztertu zuten txekiar ikerlariek eta 2022ko

udan geratu zen agerian azkenekoz. Oro har, azken urteetan gero eta harri gehiago agertzen ari dira, eta aurrez ezagutzen zirenak geroz eta maizago geratzen dira ur mailatik gora, klima aldaketak eragiten dituen lehorte ondoriorik. Hala, gosearen harriek, iraganeko zorigaitzak gogorarazteaz gain, etorkizunekoak iragartzen dituzte. ●



T.I.C.

Ebakuntza onkologiko zaharrena

Duela bi urte, Edgard Camarós arkeologo katalanak bi giza garezur eta "Minbizia?" zioen txartel bat topatu zituen kartoizko kaxa baten barruan, Cambridgeko Unibertsitatean. Garezurak Gizatik zetozten, Egiptotik eta berriki *Frontiers in Medicine* aldizkarian argitaratu duenez, bere lantaldeak bi indibiduo horiek minbizia zutela baieztatu du.

Ezagutzen diren minbizi kasu zaharretakoak dira; bietan zaharrenak, gizonezko baten garezurak (argazkian) 4.500 urte inguru ditu. Gainera buruko tumorea kentzeko ebakuntza egin ziotela ere ikusi dute. Ebakuntza oso oinarrizkoa izan zen eta ez zuen arrakastarik izan. Baina ezagutzen den lehen kirurgia onkologikoa da. ●

PODCASTAK



Gaurkotasuna galduko ez duen podcasta

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Duela gutxi Koldo Aldalurrek airtortu zidan paper zuriaren aurrean jartzeari dion bertigoa; ohituta dagoela zuzenekoetara, hitzak haizeak eramaten baititu, baina idatzitakoak hor geratzen direla. Zorionez edo zoritxarrez, gaur egun grabatzen den ezer, zuzenekoia izanda ere, ez du haizeak garraiatzen eta sarean geratzen da zintzilik, nahi duenaren eskura. *Egonarria* podcasta bezala.

Eli Pagolak eta Mattin Jauregik gidatutako saioak bigarren denboraldia osatu du. Lehenengo kolpean hamabi irratsaio egin dituzte eta bigarren honetan hogeia. "Lurrari entzuten dion saioa" du izenburu eta lurrak eta laborantzak biltzen dituzten gaiak jaso dituzte uhinetan. Hiriak elikatze formuletatik abiatu eta erlategietatik

pasaz, Kubako lehen sektore agroekologikoraino, gaiak askotarikoak izan dira. Bigarren denboraldi honetan platora gonbidatuak ekartzeaz gain, beraiek gerturatu dira lekura eta bertatik ezagutu dituzte, lurrari lotuta, hainbat esperientzia. "Lehen denboraldiak lagundu digu bigarrean landu nahi izan duguna identifikatzen, baina saioen martxarekin batera joan gara formatua fintzen", azaldu digute saioaren gidariek.

Egindako lanaren balorazio bat eskatuta, hasteko, saioek izan duten harrera azpimarratu dute; jasotako inpresioen arabera "interesa piztu baitu" podcastak. "Lehen sektoreari presentzia emateko formatu asko daude eta iruditu zitzaigun hau izan zitekeela horietako bat. Gainera, elkarrizketa batzuk bes-

teekin lotura zuzena agertzen dute, edo gai batetik hasi eta beste saio bat egiteko bidea eman dute. Uste dugu seinale ona dela hori", jarraitu dute.

PROBATU EZ DUENAK EZ DAKI ZER DEN

Orain arte saioa entzun ez duenari gonbitea zabaltzeko eskatuta, honako esan digute Pagolak eta Jauregik: "Ohituta gaude nekazariak nekazari-tzaz entzuten, arrantzaleak arrantzaz, elaboratzaileak elaborazioaz... *Egonarrian*, hizketagaiak zabaldu ditugu eta sektorearen begirada ez ezik, mundu-ikuskera batzuk ekarri nahi izan ditugu 30 minutuko tartera. Beraz, gaiak asko jakin zein piperrik ere ez, ziur interesgarri egingo zaizun zerbait aurkituko duzula *Egonarrian*". ●

“ ”

Oholtzatik jaitsi, bizitza normala egin eta gauzak gertatzen direla ikusteak beste ikuspegi bat eman digu

Francis Díez

Bilboko Uribarri auzoko taberna batean egin dugu hitzordua. Gitarra aldean etorri da. *En el brillo de tus ojitos* (Zure begitxoen distiran) diskoa plazaratu berri, kontzertu biran harrapatu dugu Francis Díez. Hizlari aparta da, eta musikari atsegina. Berarekin solastatzea ikastea da. Eztabaidarako hari berriak sortzen ditu, eta entzule-irakurlea pentsarazten jarri. Bizitzaz berbetan, koñak kopa bat aldamenean, horrela hasi gara galde-erantzunetan.

 PATXI GAZTELUMENDI  HODEI TORRES / ARGIA CC BY SA

Musikaren munduan horrenbeste denbora egin ostean, gaur egun zeri kantatzen diozu?

Historia hau zertaz doan dio abestietako batek. Badago alderdi existentzial bat. José Hierro poeta dut gogoan; berari hartu diogun poema batetik “dena eman, ezertarako ere ez” kantatzen dugu guk. Horri kantatzen diot: ezerezari, inora ez doan bideari. Bizitzaren zati horretan gaude, non dena eta ezer ez elkarren ondoan dauden, eta behingoz jabetu behar gara nora ote goazen, eta gure patua onartzen hasi, maitasunez eta

lasaitasunez. Horretan datza gure alde existentzialak. Heriotzaren gertutasuna. Aita hiltzen zaizu, hurbileko jendea ere bai... Orduan errealitatea asumitzen hasi behar duzu, eta horrekin hitz jokoak egiten hasten zara. Zahartzen ikasten. Baina era berean, bizitzen jarraitzeko gogo izugarriarekin, lau egun baitira, eta bi euritsuak... Bizi gaitezen ahalik eta ondoen orduan. Bide horretan zerbait ikasi ahal bada, hobe. *En el brillo de tus ojos* lanak horri egin nahi dio erreferentzia, guk geuk loturak sortzeko daukagun gaitasunari, maitasun loturei, laguntzen eta

sustengatzen zaituen jendeari... Badago distira bat hor, eta horretaz jabetu nahi genuke.

Eta gaur egun, nola eta zein momentutan hasten zara abestiak sortzen? Bizi ditugun garaietan nola sortzen dituzu Doctor Deseo taldearentzako abesti berriak?

Jolasean. Gitarra hartu eta sortzen hasten naiz. Badut honetarako oso ona den gauza bat: memoria defizita. Umetatik neurekin daramadan kontua da; gauza batzuetarako arazoak ematen dizkit,

hizkuntzak ikasteko edo hezkuntza kon-tuetarako adibidez. Eskolaratu nintzen garaian dena luroek bezala errepikatu beharra zegoen, eta nik ez neukan horretarako gaitasunik.

Horren orde, memoria emozional itzela daukat. Eta horren ondorioz, kopiatzeko abilezia. Baina ez dut literalki kopiatzen, horretan txarra naiz. Bateko eta beste abesti zatiak moldatzen ditut, eta abesti berriak sortu buruan

geratzen zaidanarekin. Gitarra hartu eta jotzen hasten naiz, eta beste abesti batzuen zantzuak izan ditzakete. Abesti berriak sortzen zaizkit horrela, baina oharkabean pasatzen dira kopiak. “Zer iruditzen Lou Reed-i hartu diodan hau?”. Eta kideak harrituta geratzen dira, ez baitute antzematen antzekotasun askorik. “Eta sortu dudun trap berri hau?”, eta ez dute traparen antzik aurkitzen. Eta horrela. Modu jostaria

da, eta konturatu naiz memoria defizita ondo datorkidala, abestiekin, melodiekin, nire moldaketekin jolasten naizenean, geratzen dena niri sortarazten dizkidaten emozio eta zaporea baino ez da. Eta hori nirea da.

Esan daiteke badagoela Doctor Deseoren abesti molde bat, horrenbeste kantu, melodia eta konturen ostein. Agian ez dituzu gogoratu ere egingo.

Bai, jabetuta nago ahoa irekitzen dudano igartzen dela ni neu naizela. Aho-tsa ere garatzen joan da, eta orain arean latzagoa daukat beharbada, gazteagoa ere izan naizelako. Kurtsia irudituko zaizue, baina guk badugu gure *estilema*, gu geu definitzen gaituena. Baina esango nuke baietz; badugula zerbait, entzuten denean, “hau Doctor Deseo da” esan daitekeena.

Azken lanean dozena erdi abesti kaleratu dituzue, runbatik elektronikara bitarteko bidea eginda.

Pertsona oso irekia naiz. Ez naiz nostalgian geratu, ni ez naiz “gure garaiko musika” entzuten duen horietakoa. Gure garaia? Gure garaia hau da. Egunerokoa bizi dut. Garaikidea hori da niretzat. Nire burmuinak beste modu batera entzuten du musika. Adibidez, telebistako iragar-kiekin gertatzen zait: ez dakit zertaz ari diren, baina baxuaren doinuarekin geratzen naiz batzuetan. Kontzertuetara joan, eta abestiaren funtsa harrapatu gabe, instrumentu batek egiten duenari erreparatzen diot. Ekoizpenaz ohartzen naiz. Melodia bat gordetzen dut, eta buruan bueltaka dabilkit gero etengabe, norena den jakin barik.

Nahiago dut nazioartean eta gurean ere sortzen diren trap doinuak entzutea, hasi ginen Dylan hura beti entzuten egotea baino. Pop kultura maite dut, dudarik gabe, eta guztia entzuten saiatzen naiz. 1950eko hamarkadan sortzen den Chuck Berry eta haien doinuetatik, rock&roll-aren eztanda lehenik, 1960etako soula gero, underground guztia, hip-hop doinuak, elektronika... Horrek guztiak estimulatu gaitu. Eta hor ez dauden beste estilo askok ere bai; tangoaren modura, edo gerra arteko kabareta. Entzuten ditugun doinu guztietatik edaten dugu. Nire kantatzeko moduak badu flamenkotik ere zerbait – asko esatea da hori!-. Oso urrutitik bada ere, Mikel Laboaren zerbait ere izango du nire kantatzeko moduak, nork jakin!



Urteak daramatzazue molde berean: diskoa kaleratu, bira egin, eta atsedena ostean. Eta berriz hasi.

Funtzionatu digula esango nuke. Hasieran, molde horrek Elkarretik botatzea ekarri zuen. Ritxi Aizpuru lagunarekin hirugarren lana grabatu genuen, eta esan ziguten gure Guadiana izaera hori ez zela batere bideragarria musikaren industrian. Denborarekin talde askok hartu du sortzeko modu hau, eta oso interesgarria da. Baina egia esateko, uste dut ez dugula atsedean asko hartzen. Oholtzak uzten ditugu, baina musika ez. Musikaria bizi daiteke etengabe eszenarioan egonda, itzela baita bertan gertatzen den guztia. Baina gauza ezberdinak gertatzeko, dena landu beharra dago, sortu, eta bizitza normalera itzuli eta gauzak gertatu behar dira. Oholtzatik jaitsi, distantzia hartu, bizitza normala egin eta gauzak gertatzen direla ikusi eta horrek beste ikuspegi bat ematen du, eta abestiak sortzen jarraitzeko grina eman digu guri, desira bat. Askok horrenbeste maite zuten hori gorrotatzen bukatzen dute: musika. Gu beti gogotsu gaude. Eta garatzeko aukera izan dugu.

Zenbat disko atera dituzue dagoeneko?

Hamazortzi. Eta azken hamabostak erritmo honetan, salbu eta pandemiak erdi-erdian harrapatu gintuenean, dena bertan behera utzi behar izan baikeen geuk ere.

Beti esan dut oso talde marxista garelara, ezerezetik sortu ostean, miseria kota altuenak eskuratu dituen. Hemen gaude. Ez gara Fito, baina 30 urte baino gehiago daramatzagu eta bideak poztu egin gaitu. Musika munduan desageretzea gauzarik errazena da, eta guk hemen dihardugu oraindik. Egiten duguna guretzat baliagarria den modu berean jendearentzat ere garrantzitsua dela ikusten dugu. Horrek bakarrik, dagoeneko merezi du.

Zuen ibilbide luzean, aspaldi honetan sold out da gehien aipatzen den berba.

Bai, baina ez dugu BEC betetzen, aretoak baizik. Eta oso pozik gaude, oso eskertuta. Badakigu zorarena izaten ari dela musikaren munduan, baina orain horrenbeste aipatzen den *slow* kontzep-

tua guk beti praktikatu izan dugu. Inoiz ez ditugu 30 kontzertu baino gehiago jo nahi izan denboraldi berean, beti jaitsi izan gara gurditik, beste modu batera lan egin ahal izateko. Horixe da gure lana maitatzeko daukagun aukera bakarra da. Dirua, estatusa... gauza asko daude hor. Gure hautua da.

Musika bizitzeko, musikaz bizitzeko eta gozamenaz jotzeko modua aurkitu duzuelakoan zaude?

Ezingo nioke inori aholkurik eman, baina guri balio izan digu. Guk jende askorengan jarri dugu arreta, norik zer egiten duen, baina gurea norbaiti baliagarri bazaio, itzel.

Eta inguruan zeri erreparatu diozu arretaz?

Euskal Herrian, Chill Mafiarena gus-tatzen zait. Zoro kuadrilla itzela da. Alaiak dira eta ekarpena egiten dutelakoan nago. Gaur egun *mainstream*-ean dagoen trap kultura horretakoak dira, oso gauza onak egiten dira munduan; lehenago *mainstream* eta mundu alternatiboaren artean zegoen aldea



kalitatea zen, baina gaur egun, oso gauza ederrak daudela iruditzen zait. Eta Chill Mafia aldendu egiten da nagusi den eredutik. Ekarpena iruditzen zait egiten dutena. Nafarroan oso errotuta dagoen zerbaitekin konektatzen dute, gainera: Huajalotes, Lendakaris, Bizardunak... Kai Nakai ere gustatzen zait, antiesia izan daitekeen arren. Hori eta beste gauza asko. Zuzenekoak ez ditut asko jarraitzen, ez dut nire burua txandalarekin irudikatzen.

Zure auzora etortzean jabetu naiz Athleticceko ikurrina asko daudela balkoietan. Zuek ere Sevillan izan zineten finalean, zaletuen eremuan jotzen.

Baldarkeria izugarria izan zen. Ni ez naiz batere *futboleroa*, baina Athleticceko irabazten badu, "irabazi dugu" esaten duenetakoa nauzu, pozten naiz eta ospatzen dut. Galduz gero, beraiek galtzen dute; ni ez nago hor. Eta pozik nago irabazi dugulako.

Guztien artean gehien gozatu zutenak geu izan ginen Sevillan. Patata eremu batean 20.000 lagun zeuden, eta sekulako ilarak gehiegi ordaindu behar zen katxi bat hartzeko. Ordu bete itxaroten edozertarako. Eta gu oso ondo geunden, egia esan. Egunez eszenariora atera eta jendetza hori ikustea izugarria da. Dena gorri eta zuri. Eta gu batetik bestera eraman gintuzten furgonetan. Ohore bat. Aupa Athletic!

Athleticen alde aritzeaz gain, zeren alde joko luke gaur Doctor Deseok?

Gauza askoren alde. Gazaren alde egin beharko balitz, hor geundeke. Mundu osoan gailentzen ari den ultraeskuinaren kontra egin beharko balitz ere bai. Arrazoi asko daude. Egungo Putin guztien kontra. Mundua beldurtzeko moduan dagoen honetan, adi egon beharra dago.

“ ”

Musikaria bizi daiteke etengabe oholztan, baina gauza ezberdinak gertatzeko dena landu beharra dago

Eta Bilboko Uribarri auzo honetatik, nola ikusten duzu gainontzeko Euskal Herria?

Munduaren zilborrean gaude, alde onean. Asko zorrotzu dezakegu gero diskurtsoa eta istorio mordo bat aipatu. Auzoa bera ere asko aldatu da. Bere garaian auzo langilea izan zen, batez ere Burgos eta Galiziako maketoak bizi baikin. Errepidea hemen amaitzen zen, eta hemendik gora geunden pilatuta gu, Artxandaren magalean. Baina eraldaketak eraldaketa, euskal kulturari ekarpena egiten hasi gara gu ere duela denbora gutxi.

Hirugarren munduaren lehen munduan geunden gu, baina orain hegoaldearen iparraldean gaude, baina iparraldean. Eta orain honek ere pijo auzoa dirudi.

Gogoan dut, ez oso aspaldi, Lakuntzan egindako Hatortxu Rock batean, borroka armatuaz eta ziklo aldaketaren beharraz mintzo ginela... Gauzak dezente aldatu dira orduetik. Baikorra zara?

Baikorra naiz izaeraz, horretan ez dago dudarik. Parez pare horma beltz egon arren, nik koloretsu ikusten dut. Horrek bizitzen laguntzen nau, eta egiten ditudan hautuak egitera narama. Intelektualki ordea, aski ezkorra naiz.

Baina borroka armatua utzi izanak lagundu du, gu garen pijoen herri bat izanik, gauza askok karranka egiten zuten. Kanpoan eragiten zuen kalteaz gain, barnera begira egindako kaltea ere baloratu beharra zegoen. Ezker abertzalaren inguruan, belaunaldi pare bat, ia etorkizunik gabe egon dira, lubaki batean bizitzen etengabe. Eta lubaki horren gaineko zeru ertza oso mugatua zen. Aurrera urratsa izan da gauzak aldatu izana. Alde horretatik oso pozik nago, beste ikuskerara batzuk daude orain. Beste akats batzuk egongo dira, beste gauza batzuk. Baina hobe horrela.

Uneren batean pasatu zaizu burutik maitasunari edo bizitzari kantatzeak merezi ote duen, mundua dagoen bezala egonik?

Mundua dagoen bezala dago, baina noiz egon da hobeto? Bizitza hau da. Batzuetan ez goaz inora, eta jainkoak oso jota daude, natura dagoen bezala dago, Amalurraz zer esan. [Slavoj] Žižek handiak liokeen bezala, ama batek bere semea hiltzen badu... Bizitza hau da. Garai honetan zer esan? Aurrera goaz, gure bidean. Denbora geologikoa dago, denbora historikoa, eta aurrera goazela pentsatu nahi dut. Eta badago zer hobetu, nola ez. Gazan oso txarto daude. Nire neska lagunaren ahizpa bere bikotekideak hil du duela gutxi... Hori da gerta dakizukeen gauzarik ankerrena. Bizitza ederra da, baina batzuetan kaka zaharra.

Eta bihar edo etzi kantak sortzeari ekin beharko diozu berriz.

Bai, ez dakit besterik egiten egia esan. Horrela jaio naiz. Eta pozik bizi naiz. Eskalatzera ere joaten naiz, eta ahal dudana egiten saiatu, mendietako haitzetan ere bai. ●





Hitz gezidunak

JASAILA, PAIRATZAILA TXAMARRAK	ESTALI, GAINEAN JARRI LETRA IZENA	IRUDI GEOMETRIKO	BETEA HOTSIAK EGIN GABE	ARAMAIOKO AUZOA (ARABA) GOGOZ, POZEZ	UKAPEN TRUMOI
AHALEGIN, LEHIA PARE BAT	N BIRRITAN IRAKITEN, DARAKIELA	NATURA BOKAL BARIK ZEZEN ZIKIRATUAK	BORONDATEZ GIPUZKOAKO MENDIA	SASITZA ZERBAIT OSATUA DAGOEN ERA	MODU ATZIZKIA BURUSI, OHE ESTALKI
BIKUNA GOIAN DEN TOKIRA	HERENSUGE ORINA	OIHANDU BEREZITASUN	AZKENAURREKO HIL PERTSONAIAREN ABIZENA	APAINGARRI TXIKI SAMIN, OINAZE	ENERGIA UNIBERTSITATE ESKOLA
LEKUTU, BAZTERTU	MOTORRIK GABEKO IBLGAILU EUSKAL	BOLBORAZ BALIATZEN DEN ARMA 11	EUSKAL JAKA TIPIKOA IODOA	NUEN, HAI EI	
AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK IRITZIZ	ZERBAIT EKARTZEN DUENA AUPA, HEPA!				
SUBSTANTZIA ELASTIKOA AKTORE TALDEA					

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

2	6	5		1				3
9		7	2	3				
	3	4	5	8	9		6	
	2			4	3	1		
	4	6	3	2		8	5	9
		1						7
				9				
		2		5				
	7	9	1		2			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Zerbaite daten duena.
- Baia luzanga.
- Itsas arrain izena.
- Goru.
- Enara.

EBAZPENAK

- EDALE
- DATIL
- ATUNA
- LINAI
- ELAI

9	8	7	6	5	4	3	2	1
8	1	2	7	5	3	6	9	4
4	5	3	6	9	8	2	7	1
3	9	1	8	6	5	4	2	7
7	4	6	3	2	1	8	5	9
5	2	8	9	7	4	3	1	6
1	3	4	5	8	9	7	6	2
9	8	7	2	3	6	1	4	5
2	6	5	4	1	7	9	8	3

N	E	N	V	I	N	I	V	P	N	O	K
V	I	K	V	K	U	X	T	U	V	K	
E	V	A	R	V	S		Z	E	S	U	
N	I	P	E	K	A	R	L	E	I	U	
O	V	A	R	Z	A	V	T	V	R	A	L
U	T	O	S	V	B	I	O	T	V	A	
O	I	O	V	C	O	V	D	R	O	G	
I	S	S	V	Z	V	T	O	K	B	I	
Z	U	J	U	V	H	N	N	N	I	B	
V	N	E	T	E				O	I	S	
K	I	L	I	S	I			K	V	K	
U	O	V						G	P		



Antitesiak

 UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

 ERIK LEJARDI

Badira erdigune diren ertzak. Hiri-buruetatik urruti, herri txikietako taberna, gune autogestionatu eta kale bazterretan egosten diren eszenak; underground-aren nukleo direnak, edo bilakatzen doazenak. Tarteka, Euskal Herriaren luze-zabaleko taldeen eta inguruetatik zaleen elkargune bihurtzen direnak. Eta probatzeko, jolasteko, proiektu berriak plazaratzeko, entsegu eta kontzertu arteko mugak lausotzeko espazio bihurtzen dira, batzuetan, bazterrok. Ertz izanagatik, apenas dute hertsitik.

Bizkaiaren baitako ertzetan *-friendly reminder*: Bizkaia ez da Bilbo- baditugu erdigune batzuk, Trabakuaren alde banatara, esaterako; Zaldibarko Sorgin tabernaren ingurumariak dira horren adibide.

Katu hirukote durangarrarekin batera, Borla musika taldeak hiru egun lehenago *Kordoba Bidea*, estreinako

LPa, kaleratu izana ospatzeko proposamena eginda, bertaratu dira lagun, ezagun eta zaleak Sorginera.

Besteak beste, Tatxers eta Blessure taldeetako kideak izaki, ezin esan hasiberriak direnik. Hala ere, eta egungo abiadurak abiadura, proiektu berria dela esan daiteke: 2023ko irailean eman zuten lehen kontzertua, eta urtarrean sareratu kontzertu horren aurretik lokalean grabatutako demoa.

Lagunartean, kontzertu-entsegu egingo dutela esanda eman diote hasiera. Zazpi abestikoa da LPa, eta horiek joz egin dute zuzenekoa; ez gehiago, ez gutxiago. Soinuan igartzen ez den arren, musikarien aurpegian bai, nabari da abestiei neurria hartzen dabiltzala.

Lehenengo abestitik ostiral eguzkitsuaren sintonian sartu zait musika, melodia argitsu eta kutsakorrek inbarrenak alegantziaz bibrazazita.

BORLA

NOIZ: Maiatzaren 24an

NON: Sorgin tabernan (Zaldibar)

Abestien letrak, ordea, bata bestearen atzetik, garaiaren erretratu intimo eta gordinak dira. Poparen, punkaren eta rockaren nahasketatik sortzen diren antitesiak, publikoak jada bere egin dituenak. *Bailongo* hitzaren euskarazko adiera gustukoa bilatu artean, Oki Moki taldearen *Langile Klasearen Popak* balioko lidake deskribatzeko: mezu zuzenak baina ederrak aldi berean, edo gordintasuna alegantzian bildurik.


Ordu erdi eskasean bukatu dute. "Ez daukagu gehiago". Irribarrea atera zait ondokoak berriro hasieratik errepikatze esan duenean. Abisatuta geunden arren, motz egin zaigu.

Mila gauza egiteko, eta diamante, perla edo urre gorririk ez dugunontzat, alegantzia baino, ez baita hobetik. Ostiral eguzkitsuetan, *lata pare bat edo bi / itzal bat* -pop punki bailongoa- *eta aski*. ●



LIBURUA

Betiberdina



HORMA
MARLEN HAUSHOFER
ITZULT: NORA ZUBILLAGA
 EREIN, 2023

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lehengusinarekin eta haren senarrarekin landa aldera egindako irteera batean hasi zen dena. Horiek afaltzera joan eta ez ziren etxera itzuli. Haien bila atera eta horma batekin topo egin arte ibili zen protagonista. Hortik aurrera, hormak ez dio aurrera egiten uzten eta bi pertsonaia izoztuta, hilda bezala ikusten ditu. Hormaz harago heriotza dauka zain. Beraz, hurrengo bi urte eta erdiz egutegian jaso dituen oharrek lagunduta, gertatu zaion guztia kontatzeko idazten du protagonistak. Hausnartutakoaz ere idatziko du: heriotzaz eta bizitzaz, nor den eta nor izan nahi duen... Informea idatziko du, hala dio hasieratik: *Ilundu arte idatziko dut, eta ezohiko lan berri honek nekatuta, hutsik eta logaletuta utzi behar dit burua* (11. orr).

Aurreko bizitzaz gutxi pentsatzen du. Apenas nabari duen senarraren eta alabaren hutsunea: *Haietaz ar-*

duratzen jarraitzen nuen ahalik eta ondoen, baina oso gutxitan nintzen zorientsu haien ondoan (211. orr). Aspergurak hartzen zituen haren egunak eta egunerokoa itogarria zuen. Hormak protagonista preso daukala pentsa genezake eta hala sentitzen da, batzuetan. Aurreko bizitzaren liberazioa ere sentitzen du, ordea. Eta bera libre izateko aukera. Abileziak eta trebetasunak eskuratzen ditu, eta lerroek aurrera egin ahala indartu egiten da, inguratzen duen horren ezagutza handituta.

Ustez bakarrik eta isolatuta dago, ez baitugu bukaera arte beste pertsonaiarik ikusiko mendietan. Konpainian biziko da, ordea: Luchs txakurra, Tigre katua eta Bella behiarekin batera igaroko ditu horma aurkitu eta gero egun guztiak. Zama, lotura dira animaliak, baina bizirik mantentzeko arrazoa ere badira. Haien zaintza

bermatzeko egin beharreko errutinak mantentzen du zentzudun.

Testua osorik eta jarraian idatzita dago, ez dago kapituluka egituratuta. Gehiena iraganean idazten badu ere, orainaldiko denbora ere erabiltzen du, saltoak eginez paragrafo berean. Deskribapenak bisualak izatetik aparte oso sensorialak –entzuten, dastatzen, ukitzen duena deskribatzen du– eta limurtzaileak dira. Estilo iradokitzailea du Haushoferrek. Protagonistaren egunerokoa errepikakorra, itogarria, aspergarria eta nahasgarria da (*betiberdina*). Primeran transmititzen du protagonistaren agonia, baina badago intriga eta interesa mantentzen duen elementu niretzat azpimarragarria: Bella behia. Itxaropena jartzen du berarengan. Bukararaino irakurri beharra dago distopia moduan hasi den liburuko ahots beldurti eta sosegu gabearen amaierako argi izpia ulertzeko. Ederra eta liluragarria. ●



MUSIKA

Sentimendu hutsa eta ahots festa



OLBE



OLBE

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBEren 2023/2024 denboraldia amaitu da, publikoak beti espero duen tituluarekin. Mila aldiz entzun arren beti sentimendu biziak pizten dituen opera da Pucciniren maisulanetako bat. Gainera, oraingo honetan, primerako bakarlariez gozatu ahal izan dugu; antzezpena benetako plazer bihurtu dute.

Baina, horretaz guztiaz gain, hirugarren elementu batek bereziki asebeten nau: eszenaratzea bertsio klasikoan izan da, jatorrizko garaian kokatua eta alferrikako distortsiorik gabekoa. Non-bait irakurri dut oso publiko klasikoarentzat egokia izan dela bertsio hori, baina agian ez dela oso bizigarria izan ezagutza zabalagoa duten ikusleentzat. Nik justu kontrakoa esango nuke. Operan mila distorsio ikusi ditugunok, itxuraz, operarekin harremanik izan ez dutenengana hurbiltzeko; opera *almodovarizatzen* ikusi dugunok -zuzenda-

riari errespetu guztia- klasizismora, sinpletasunera, musikaren egileak eta libretoaren egileak bere garaian planteatu zuten jatorrizko esentziara itzuli behar dugu.

Oraingo honetan, Pucciniren ideia originala bere elementu guztietan biltzen duen *Bohème* bat ikusi eta entzun dugu, eta horregatik antzezipen horrek jatorrizko zentzu osoa du.

Hasieran aipatu dudan bezala, antzezipenaren gauzarik garrantzitsuenak ahots bikainak izan dira. Zalantzarik gabekoa, gaueko izarra Miren Urbietta-Vega izan da. Soprano donostiarrak Mimiren pertsonaia ondo menderatu du. Tinbre ederreko ahotsa du, indartsua, eta emisio dotorekoa. Pozgarria izan da soprano entzutea, erregistro guztietan perfektua izan baita. Une zoragarriak izan ditu. Azpimarratzekoa da *Mi chiamano Mimi* aria. Dena den, une oro maila oso ona eman du.

OLBEk antolatutako *La Bohème* opera, Puccinirena. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Pedro Halffter. Bilboko Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. Leioa Kantika Korala. **Zuzendaria:** Basilio Astulez. **Eszena zuzendaria:** Leo Nucci. **Bakarlariak:** Miren Urbietta-Vega (sopranoa), Celso Albelo (tenorea), Manel Esteve (baritonoa), Marina Monzó (sopranoa), José Manuel Díaz (baritonoa), David Lagares (baxua), Fernando Latorre (baxu-baritonoa), Aitor Garitano (tenorea). **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** maiatzaren 24a.

Era berean, Celso Albelo tenore kanariarrak pertsonaia pucciniarrei primeran egokitzen zaien ahots bikaina duela erakutsi du. Bere aria *Che gelida manina* gozamena izan da, baita Mimirekin batera antzeztu dituen duok ere, adibidez *O soave fanciulla*. Albelok agudo bikaina du eta segurtasun handia kantuan. Balio segurua da, dudarik gabe.

Gainerako bakarlariek maila ona eman dute. Marina Monzó sopranoak *Musetta* dotore eta bokalki bikaina egin du. Manel Esteve baritonoak ahots orekatua eta aktore-gaitasun handia erakutsi du. José Manuel Díazek, David Lagaresek, Fernando Latorrek eta Aitor Garitanok maila bikaina erakutsi dute, baita ere. Eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa paper ona egin du. Beharbada Pedro Halffterrek markatutakoak *tempi* ohi baino motelagoak izan dira, baina ez dio edertasunik kendu osotasunari, eta agian itxura araztuta eta sentimentalagoa eman dio. Gustatu zait. ●

Patxi Ezkiaga eta isiltasun jasangaitza

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Isiltasuna gauza inportantea da. Entzun dezagun zer dioen. Entzun iskanbila, istilu, zalaparta, asaldura eta espantu guztien gabezia honi, esanguratsua baita.

Joan den astean izan genuen salaketaren berri. Ezin nuen sinetsi. Gero, ia deus ez. Eta ni behintzat, harrিতuta ari naiz ikusten batzuetan justiziagilearen kapa harrotuta aurkezten den gure panorama kulturalak nolako nagitasunez begirutzen dien, beste batzuetan, biktimarik ahulenek jasandako doilorkeriei: Patxi Ezkiaga zena akusatu dute adin txikiko neska baten aurkako sexu-erasoengatik. Eta albisteak eragin didan sorgortasunaz gain, ondoren ia inork ezer ez esateak utzi didan hutsunea garratzen ari naiz azken egunetan.

Jakin nahi dut zerez osatuta dagoen isiltasun hori. Ezjakintasuna ote? Ezkiaga nor izan zen ez gogoratzeko bezain matxuratuta ote daukagu transmisorea? Ala irabazi/galaren kalkulua da, akaso? Salaketa egin duen pertsona ez baita famatua. Eta salatutako idazlea hilda dago. Zertarako nekatu kapital sinbolikorik jokoan ez dagoen kontuetan.

“Zortzi edo bederatzi urte izango nituenean hasi zen. Lehen oroitzen gogor gisa, akordatzan naiz egun batean diapositiba batzuk jartzera etorri zela. Ilunpetan, bere hanken gainean esertzera behartu ninduen, eta fraidea zenez, inork ez zuen ikusten edo ez zuen ikusi nahi. Nire hankak irekita esertzen nintzen bere hanka baten gainean, eta denbora guztian nire belaua ukitzen, nire ipurdia, bizkarra. Genitalak ukitzen zizkidan hankarekin, hanka igurzten zuen, edo ni mugitzen ninduen, edo bera mugitzen zen, igurzteko. Esku batean proiektorearen agintailua zerabilen, eta bestearekin ukitzen ninduen. Hori guztia, nire gurasoak gela berean zeudela”.

Marisol Zamoraren hitzak dira. Bere esanetan, hamahiru urte bete zituen arte jasan zituen horrelako erasoak Ezkiagaren aldetik. Ez dirudi bakarria izan zenik: “90eko hamarkadan zurrumurru asko zegoen, umeak ukitzen zituela. Neskak deitzen zituen bere bulegora eta hirunaka joaten ziren elkar babestu ahal izateko”.

Testigantza irakurriko zuten Ezkiagarekin harremana izan duten literatur munduko pertsonak ere. Lerro hauek idazten ari naizen unean, inork ez du txintik esan. Isiltasuna. Laster atertuko duela dirudi.

Segur aski baten batek oraindik erantzungo lidake, idazlea hila izanik, bere burua defendatu ezin duen norbaiten aurka ari naizela. Eta egia da. Egia da, era berean, Ezkiagak bizi zen artean ez zuela egindakoaren erantzukizunik hartu. Heriotzak horretaz ere salbuetsi du. Biktimetako batek urtetako omertà puskatu izan ez balu, ondo gordea geratuko zen guztia, kon-

tatu gabe uzten diren nazkagarrikerien kutxa gotorrean.

Albisteak eragin duen su txikitik Ezkiagaren poemak salbatu beharra ere piztuko zaio, akaso, baten bati. Eta arrazoia izango du agian. Baina momentu honetan, ezinezkoa egiten zait haren poemetan sarri agertzen den maitasun-erperientzia narean sinestea, gogoratu gabe idatzi zituenak bere esku zeuden umeen bizimodu afektiboan hain inpaktu larria izan zuela. Poetaren ni-ak hainbesteko presentzia daukan obra batean, jarrera egiatia da gutxieneko exigentzia eta ez dakit Ezkiagak idatzitako zenbait lanek proba hori pasako luketen.

Bestalde, dakigunak aski izan behar luke poetak bizi zen artean jasotako ohoreetako batzuk berrikusteko, besteak beste Legorretako seme kuttun izendapena eta herrian haren omenez jarritako eskultura. Abusuen biktimei zor zaien erreparazio-keinu txikiena litzateke. Isiltasuna pitzatzen hasteko modu bat. ●



egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Ekainak 5

Manuelarekin arrantzan

Manuela Jauregi

Ekainak 12

Eskolako jantokietan bertako jaki osasuntsuak noizko?

Lurdes Imaz eta Eneko Viñuela
(Gure Platera Gure Aukera
proiektuko kideak)

Ekainak 19

Azoken egoera

Aitziber Plazaola (Ereindajan) eta
Jon Ruiz (Eskubaratz)



ELKARRIZKETA

BAT.

Erakusketa
2024-06-08
San Telmo Museoa

CHILLIDA

www.santelmomuseoa.eus

ETA ARTEAK

1950-1970

Antolatzailea:

STM
San Telmo Museoa



donostia
kultura

Erakunde babesleak:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanikidetz, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN